



**Erkuden Ruiz Barroso** SAKANA

*Gaur irekiko ditu ateak Durangoko 25. Azokak zioen Euskaldunon Egunkaria*-ren lehenengo alearen azalak. 1990eko abenduaren 6a zen. Egunkaria Sortzen taldeak lan handia egin zuen euskarazko lehenengo egunkaria aurrera ateratzeko. 2003ko otsailaren 20ra arte. Egun horretan, goizaldean, Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkaria* kazetaren itxiera agindu zuen, ETArekin kolaboratzea egotzita. Hedabidearen zuzendari taldeko kideak atxilotu, torturatu eta espetxeratu zituzten. Zazpi urte beranduago terrorismo deliturik ez zegoela erabaki eta auzipetuak absolbitu zituen. Itxieraren hurrengo egunean *Egunero* deitutako hedabidea sortu zuten eta, ondoren, zenbait hilabete beranduago *Berria*.

Lehenengo euskarazko egunkaria, egia esan, 1937an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak: *Egunero*. Hilabete gutxi batzuk iraun zituen Espainiako Gerraren ondorioz bertan behera geratu zelako proiektua. Ordutik, ez zegoen euskaraz egunero publikatzen zen prentsarik, 1989an euskal gizarte eta kulturagintzako hainbat kide elkartu zirenean eta euskarazko egunkari bat beharrezkoa zela pentsatu zuten arte. *Egunkaria* proiektuaren lehenengo urratsak ziren, eta gauzatzeko Egunkaria Sortzen Taldea sortu zuten. Proiektuak aurrera egiteko, eta dirulaguntza eta administrazioaren laguntza zuten aurrean, 1990eko apiriletik uztailera kanpaina handia egin zuten. Euskaldunon Egunkaria gertu zegoen. Lan handia egin ondoren urtea amaizera zegoela kaleratu zuten lehenengo alea, 32 orririkin.

#### Itxiera

Alberto Barandiaran Amillano altsasuarrak proiektuaren sorreratik lan egin zuen *Euskaldunon Egunkarian*. *Egunkarian* eta *Berrian* hogeitaz lan egin zuen eta Iruñeko delegaritzako burua zen Barandiaran 2003an



Alberto Barandiaran Amillano 'Egunkaria aurrera'-ren prentsaurreko batean. ARTXIBOA

# 'Egunkaria', inoiz ez isildua

2003ko otsailaren 20an 'Euskaldunon Egunkaria' hedabidearen bulegoetan sartu eta euskarazko hedabidea itxi zuten. Alberto Barandiaran kazetari altsasuarrak lehenengo pertsonan bizi izan zuen. Gerora, 'Berria' sortu zuten

itxi zutenean. 1990ko hamarkadaren hasieran egunkari bat egitea "oso desberdina" zela esan du Barandiaranek. Dena "eskulana" zen; artisautza. Idatzitakoa fisikoki bidaltzen zuten eta maketazioa ere eskuz egiten zen. Ordenagailu "antzeko" bat zuten bulegoan. Argazkiak errebelatu eta bidali behar zituzten ere. Pixkanaka teknologia berriekin lan egiteko modua aldatuz joan zen: "Helburua ez da

aldatu, kazetaritzaren helburua ez da aldatu: informatzea. Baina lan egiteko modua asko aldatu da".

2003ko otsailaren 20ko 4:00etan etxera deitu zioten. Guardia Zibila zen, kalez jantzita. "Bulegoa miatu behar zutela esan zidaten eta atea ireki behar niela". Ezet esatea ere pentsatu zuen, baina hala ere miatuko zutela pentsatuta, "ez dakit ongi ala gaizki egin nuen, baina bulegora joan

ginen". Lau orduz aritu ziren bulego guztia miatzen. Tarte horretan Barandiaran "inkomunikatuta" egon zen, ez zekien zer gertatzen ari zen. "08:00ak aldera bukatu zutenean deitzeko aukera izan nuen eta orduan jakin nuen beste delegaritzatan berdina gertatu zela, miatu zizutela eta atxilotuak izan zirela". Miaketan kalez jantzitako eta uniformedun guardia zibilak zeudela gogoratu du altsasuarrak.

Atxilotuta ote zegoen galdetu zuen ere altsasuarrak.

Bulegoa goitik behera miatu zuten. Garai horretan informazioa karpitetan gordetzen zuten eta Barandiaranek gogoan du garai-ko Nafarroako Gobernuako kide zen Rafael Gurrea politikariaren karpeta hartu zutela eta zerbait oso garrantzitsua topatu balute bezala aritu ziren. "Esan nien hedabide bat ginela, kazetariak ginela, eta informazio hori izatea normala zela".

#### Biharamuna

*Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren operazioan hamar kide atxilotu zituzten, *Egunkariaren* administrazio eta zuzendaritza kide zirenak: Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis Goia eta Inma Gomila. Bost egun inkomunikatuta egon ondoren Torrealdei, Uribe, Oleaga, Auzmendi eta Alegria baldintzarik gabe espetxeratzea agindu zuen epaileak. Otamendi, Gomila, Lazkano eta Goia aske utzi zituen, bermea ordainduta. Zubiriari 72 orduz luzatu zion inkomunikazioa. Torturatuak izan ziren, "gerora ondorioak izan dituztela".

Ondoren, urrian, Martin Ugalde Kultur Parkearen eta *Egunkariaren* enpresa taldearen aurkako operazioan, Del Olmo epaileak gidatuta ere, beste zortzi pertsona atxilotu zituzten: Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Armando Hernandez, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune, Joanmari Larrarte eta Xabier Legarra. Denak inkomunikatuta izan zituzten, eta egunetara bermerik ordaindu gabe edo hamabina mila euro ordainduta libre gelditu ziren.

Barandiaranek esan duenez, Iruñeko delegaritzan ez zuten aurretik ezer nabaritu; "ez genuen espero". Gerora jakin zuten Otamendik bere atzetik zebiltzabela susmoa zuela. "Baina guk ez".

Hurrengo egunak oso mugituak izan ziren euskarazko egunka-



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK  
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





'Euskaldunon Egunkariaren' itxieraren aurkako elkarretaratzea Altsasun. ARTXIBOA

riaren kazetari eta langileendako. *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta hurrengo egunean, 2003ko otsailaren 21ean, *Itxita baina inoiz ez isildua* lerroburuarekin *Egunero* deitutako kazeta publikatu zuten. "24 orduz lo egin gabe egon nintzen. Hurrengo egunean *Egunero* publikatu behar genuen eta *Diario de Noticias* de Navarrako inprentan egin behar genuen. Bertan egoteko eskatu zidaten". Guardia Zibila publikazioa kontrolatzen egon zen ere. Baina kaleratzea lortu zuten eta egun horretan 70.000 ale saldu zituzten. *Egunerok Berria* atera arte iraun zuen. Berriaren lehenengo alea 2003ko ekainaren 21ean kaleratu zuten.

#### Elkartasuna

Egunkaria itxi zuten lehen momentutik elkartasun eta babes handia nabaritu zutela esan du Barandiaranek. Hurrengo egunean elkarretaratzeak deitu zituzten toki askotan, tartean, Iruñeko delegaritzaren aurreko plazan. "Elkartasun horri esker, jende horri esker, lortu genuen *Egunero* publikatzea eta, ondoren, *Berria*. Beharrezkoa zen". Elkarretaratzeak, manifestazioak, ekimenak, jarduerak... Sakanan ere Egunkaria itxi eta hurrengo hilabetetan izan ziren euskarazko hedabidearen aldeko ekimenak. Elkartasuna adierazteko ere Barandiarani 2003ko Altsa-

suko festetako txupinazoa botatzea eskaini zion Aralar alderdiak, herritar bati aukera ematen zioten lehenengo aldia.

#### Espainiako Auzitegi Nazionala

Iñaki Uriak izan zen 2004ko abuztuaren 24an, auzipetze autoa kaleratu zuen Del Olmok eta Torrealde, Uriak, Auzmendi, Otamendi, Zubiria, Oleaga eta Alegria auzipetu zituen. Hele-

### 2003KO OTSAILAREN 20AN, 04:00ETAN, GUARDIA ZIBILA BARANDIARANEN BILA JOAN ZEN, ETXERA

### LEHENENGO MOMENTUTIK ELKARTASUNA ETA BABESA OSO HANDIA IZAN ZEN

### 'EGUNKARIA' ITXI ETA HURRENGO EGUNEAN 'EGUNERO' KALERATU ZUTEN; 70.000 ALE SALDU ZIREN



Egunkariaren aldeko lanuztea. ARTXIBOA



'Berria' sortzeko diru bilketa egin zuten. ARTXIBOA

giteak aurkeztu zituzten. Urteak pasatzen joan ziren eta Egunkaria Auzia ixteko artxibatze eskatzen zuten ahotsak entzuten hasi ziren Europako Legebiltzarrean, Espainiako legebiltzarrean eta senatuan, baita Eusko Legebiltzarrean ere. 2006. urtearen amaieran *Egunkaria* ixteko arrazoirik eta deliturik ez zegoela onartuta, auzia ixteko eskatu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalako Angel Carballo fiskalak. Baina 2007an hiru langile ohi inputatu eta deklaratzera deitu zituzten Del Olmok, auzi ekonomikoa berpiztuz eta Egunkaria auzian, itxierari buruz epaitzea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak. Ondoren, auzi ekonomikoa ere Auzitegi Nazionalan egitea erabaki zuten.

2009ko ekainaren 23an egin zuten Espainiako Auzitegi Nazionalan *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierari buruzko azkeneko auzi saioa. Carballo fiskalak auzia behin betiko ixteko eskaera egin zuen, baita Iñigo Iruin eta Jose Mari Elosua defentsa abokatuek ere. Aldiz, AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek epaiketa egiteko eskatu zuten; eta horrela egitea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak. Egunkaria auziak aurrera egin zuten. Bost auzipetu izan ziren: Torrealde, Uriak, Auzmendi, Otamendi eta Oleaga.

Epaketak 2010. urte hasierara arte iraun zuen. Fiskalak ez zuen auzipetuen aurkako zigorririk eskatu eta auzibidea artxibatze eskaera egin zuen, deliturik ikusten ez zuela argudiatuta. Herri akusazioek 12 eta 14 urte arteko kartzela zigor eskaerak egin zituzten.

Apirilaren 12an eman zuten epaia: Espainiako Auzitegi Nazionalak terrorismo deliturik izan ezezta erabaki eta auzipetuak absolbitu zituen. Barandiaranek esan duenez, jakina zen zer gertatuko zen, baina itxiera, torturak, epaiketa... Urte luzeak izan ziren, "berandu zen".

*Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren gau hartatik hogeitau urte pasa dira eta Barandiaranek esan duenez "gertatutakoa beti oroitzen duzu". Hala ere, denboraren poderioz efemeridea ahaztu duela aitortu du: "Gogoratzen zara, baina egia esan ez nekien hogeitau urte egiten zituenik eta data orain zenik".



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Haize Berriak 25 urtez Sakana egiten eta eragiten

Iazko abenduaren 30ean, pandemiaondoko urteari akabaila xarmant eta zoragarria emateko Burunda pilotalekua galaz jantzi zen ikuskizun berezi, handios eta txukun bat aterbetzeko. Zortziehun sarrerak egun batzuk lehenago agortu ziren, ikusmina gaitza zen, eta frontoira sartzeko ilara ere ebentorearen muntaren erakusle eta lekuko zen.

Posmodernitatearen eta efimerismoaren garaian ez da erraza mende laurden bat betetzea edukiz, ganoraz eta ahalegin sortzailez, are gutxiago dirua akuilu eta sari ez denean.

Bada, oparo eta naroki osatu du Haize Berriak-ek orain arteko ibilbide luzeko eta aberats hau. Banda honek meritu ugari ditu, erreperitotik abiatuta, ausardia erakusten du, mota anitzeko piezak landuz eta jorratuz: herrikoiak, ezagunak, abangordiakoak, alaiak, berri-berriak, zapore mikatz eta garratz dituztenak, baita goxoz beteak ere. Bestalde Sakana saretzen duen asmo luzerako proiektua dugu honako hau, bailara osotik datozen musikariak (baita adin oso desberdinetakoak ere) batzen

### POSMODERNITATEAREN ETA EFIMERISMOAREN GARAIAZ EZ DA ERRAZA MENDE LAURDEN BAT BETETZEA

baititu. Halaber, nabarmentzekoa da hainbat festa eta ospakizun herrikoitan egiten duen ekarpena, xarmaz, alaitasunez eta dantzarako deia eginez.

Beste 19 talderen konplizitateaz emanaldi zinez ahaztezina osatu zuen bandak,

eta *soirée* hau segurutik luzaz geldituko da egon ginenon gogoan. Burunda pilotalekua hainbat ikuskizun historikoren lekuko izan da, nik, bederen, bihotzean dauzkatz Amalur, Mainamikirri edota Oskorriren edo B. Lertxundiren kontzertuak, frontoia alderik alde lepo jendez eta emozioz beterik. Oraingoan ere emozioak gainezka egin zuen, apaingarri ezinago eder eta bikainez osaturiko emankizun, sentikari edo hunkikari honetantxe.

Esker mila Haize Berriak eskainitako guztiarengatik, espero dugu erakundeetatik behar adina laguntza jasotzea, merezi duzue-ta. Betoz xarmaz, magia, sorkariz eta hunkigarritz, musikaz alegia, beteriko beste 25 urte sorgindu, gutxienez.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Arrazakeria eta Xenofobiaren kontrako eguna dela eta....

#### ANITZARTEAN SAKANAKO KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

1996an Nazio Batuen Batzar Orokorra martxoaren 21a Arraza Diskriminazioarekin (edozein dela) bukatzeko Nazioarteko Eguna izendatu zuen, Sharpevilleko sarraskiaren oroimenez. "Apartheid" sistemaren kontra manifestazioan kalera atera zirenen kontra egin zuen Hego Afrikako polizia 69 pertsona erailda.

*Apartheid*a ofizialki desagertuko zen, baina arrazakeriak indarrean dirau, egitura sozial eta politikoaren parte da, eta giza eskubideak eta pertsonen askatasunak urratzeko balio du.

Arrazakeria instituzionalizatuta dago. Atzerritartasun legea adibide, zeinak egoera

irregularrean egotera kondenatzen dituen milaka eta milaka gizaki, horrek dakarzkien eskubide urraketekin (errolda, formakuntza, libreki mugitzea, migratzea...).

Hainbat aurrerapen eman badira ere (gazte migratuak erregularizatzeko dekretua, lan errotuaren onarpena zabaltzea...), praktika arrazistek indarrean jarraitzen dute nafar gizartearen: "zita tranpak", pentsamendu baztertzalea, poliziaren kontrol arrazistak, itzulerak beroan, etxebizitza eta errolda lortzeko zailtasunak... Barne eta kanpo mugek hilketarako guneak izaten jarraitzen dute (19.000 hildako, 2014an migrazio krisia kalkulatu zen hasi zenetik).

Pribilegioen sistemari eusten dion mendeetako lastrea da arrazakeria, eta aurre egin behar zaio bere adierazpen guztietan.

Atzerritartasun legearen indargabetzea premiazkoa da, Mordaza Legea bezala, eta baita Atzerritarrak Barneratzeko Zentroen itxiera, Arrazakeria instituzionalaren adierazpen goren baitira.

Ukrainako gerrak europar arrazakeriaren, bazterkeriaren eta tratu desberdintzaileen alderdi berri bat erakutsi digu.

Ukrainar herriari eman zaion tratu berdina exijitu behar da, bere bizi proiektuak modu duin batez aurrera eramateko asmoz migratzeko eskubide unibertsalean ari den gizaki ororentzat, guztiontzat, azken finean.

## Telegram kanala

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luza) /  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZALEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

## Udalendako eta kontzejuendako 548.000 euro

Gobernuak udalerrri txikien eta biztanleria gehien sakabanatzen dutenen finantzaketa indartu nahi izan du

### SAKANA

Lurralde Kohesiorako Departamentuak 10 milioi euro banatuko ditu Nafarroako udalerrri eta kontzeju guztien artean, inbertsioak egin ditzaten. Dirua Tokiko Inbertsioen Planaren Askatasunez Zehazteko programatik aterako da eta Sakanako udal eta kontzejuak guztira 548.319,44 euro jasoko dituzte. Gobernuaren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialak heldu den astean argitaratuko du. Ordutik, eta hala badagokio, udalerrri konposatuak eta haien kontzejuak, hau da, Arakil, Ergoiena eta Etxarri Aranatz, hilabete izanen dute departamentuari jakinarazteko dirulaguntza zeinek jaso behar duen. Toki erakundeek dirua urteko bigarren hiruhilekorako ordaintzea aurreikusten du gobernuak.

Joan den urtean tokiko finantzaketa sisteman ezarritako aldaketaren ondoren, Askatasunez Zehazteko programaren inbertsioak ez dira nahitaz aurten gauzatu beharko, hau da, kopuru handiagoko inbertsioak egiteko pilatu daitezke. Berritasuna udal eta kontzejuen autonomian aurrera pausoa da.

Biztanleria eta sakabanatze geografikoa izan dituzte kontuan dirua banatzerakoan. Udalerrri bakoitzak populazioaren arabera zenbateko finko bat jasoko du. Gainera, udalerrri konposatuak eta biztanleria guneak dituzten udalerrri bakunek diru gehigarria jasoko dute.

### Dirulaguntzak

Udalerrria / Kontzejuak	Kopurua
Arakil	41.800
Egiarreta	3.492
Ekai	2.645
Errotz	3.407
Etxarren	5.058
Etxeberri	3.153
Hiriberri Arakil	4.317
Ihabar	4.720
Izurdiaga	5.397
Satrustegi	2.920
Urritzola	2.221
Zuhatzu	2.687
Irurtzun	43.639
Irañeta	19.087
Uharte Arakil	38.624
Arruazu	19.087
Lakuntza	38.174
Arbizu	38.174
Ergoiena	17.439
Lizarraga	6.837
Dorrao	5.622
Unanu	4.979
Etxarri Aranatz	47.624
Lizarragabengoa	1.800
Bakaiku	19.087
Iturmendi	19.087
Urdiain	32.709
Altsasu	57.261
Olatzagutia	38.174
Ziordia	19.087
<b>Guztira</b>	<b>548.319</b>

# Dinabide Berrikuntza Digitaleko Poloko kide da

Europako Batzordeak Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloa, Iris, Berrikuntza Digitaleko Europako Hubs-en (EDIHs laburdura ingelesez) lehen sarea sartzeko hautatu du. Enpresen digitalizatorako zerbitzuak eskainiko ditu Iris-ek

### SAKANA

Nafarroako Berrikuntza Digitalerako Poloa, Iris, foru erkidego 23 erakunderen bi urteko elkarlanaren fruitua da. Sakanako Garapen Agentzia (SGA) eta Dinabide hasieratik bertan egon dira. Iris-ek leihatila bakar gisa funtzionatzen du. Han enpresek beren negozioak, ekoizpen prozesuak, produktuak eta zerbitzuak teknologia digitalaren bidez hobetzeko laguntza lor dezakete. Industriako enpresek, bereziki enpresa txiki eta ertainek (ETE), enpresa berriak eta kapitalizazio ertaineko enpresek jo dezakete Irisen atean.

Irisek hori egin ahal izateko finantzaketa bila Europan eta estatuan atea jo zuten eta Europako Batzordeak Nafarroako Berrikuntza Digitalerako Poloa, Iris, Berrikuntza Digitalerako Europako Hub edo zentro gisa onartu zuen 2022ko deialdian. Horrek Iris-i Europako beste antzeko poloekin lankidetzan aritzea erraztuko dio. Aldi berean, enpresei jardunbide eta joera digital onenak eta eskualde, nazio eta Europa mailako punta-puntako teknologiak eskuratzeko aukera emanen die. Horrekin batera, Europatik eta estatutik 2023-2025 aldirako dirulaguntza jasoko du Iris-ek.



Poloa osatzen duten 23 erakundeetako ordezkariak. IRIS

SGAko kudeatzaile Iker Mantrola Matxainek jakinarazi duenez, Dinabidek 180.000 euro jasoko ditu. "Iris aurki zerbitzua ematen hasiko da". ETEk zerbitzuak %100 finantzatuta izanen dituzte.

Irisek eskaintzen dituen zerbitzuak hiru espezialitate teknologikotan biltzen dira: adimen artifiziala, superkonputazioa eta doitasunezko medikuntza pertsonalizatua. Bost zerbitzu kategoriatan egituratzen dira, eta enpresen beharretara egokitzen dira, sektorearen eta heldutasun

digitalaren mailaren arabera. Kategoriaz horiek honako hauek dira: esperimintazioa eta entsegua, prestakuntza eta talentua, finantzaketarako sarbidea, berrikuntzako ekosistemarako sarbidea, ekintzailatza eta networkinga, eta doitasunezko medikuntza pertsonalizatua digitalizazioaren bidez.

Dinabide irabazi asmorik gabeko erakundea da irailaz geroztik. Hala ere, SGAk elkarrekin indartzeko eta garrantzia emateko lan egingen du hiru urtez, hura sendotu eta egonkortzeko.

bertako  
igogailuak | ascensores

# REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA  
**100€-tik/hileko**

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz ourrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA  
943 903 450

BIZKAIA  
946 523 935

ARABA  
945 712 822

NAFARROA  
848 870 917

www.bertako.eus



Eguneko zentroko erabiltzaile batzuk patioko baratzean. ARTXIBOA

# Klinikak diru bilketarekin segituko du

Eguneko zentroa handitu eta eraberritzeko proiektua aurten gauzatu nahi du Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoak. Lanen aurrekontua osatzeko eta haiei bulkada emateko sakandarrengandik 75.000 euro jaso nahi dituzte

## SAKANA

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko eguneko zentroa modernizatu eta handitzeko proiektua aurten egingen da. Lan hori egin ahal izateko duela bi hilabete diru bilketa kanpaina abiarazi zuten klinikak berak eta klinikaren Lagunen Elkartek. Epea pasata, lanak egiteko beharrezko jotzen dituzten 75.000 euroak ez dituzte lortu. Batetik, horregatik, erabaki dute diru bilketarekin segitzea. Bestetik, lanak oraindik ez direlako hasi.

Ibarreko eguneko zentro bakarra 115 metro karratu handitzearekin batera, egungo azpiegitura eraberritu nahi du klinikak. Horretarako, 350.000 euroko inbertsioa egingen du. Aurrekontuaren 120.000 euro Gizarte Eskubideen Departamentuaren dirulaguntzarekin estaliko du. Eta beste zati bat, 75.000 euro, sakandarrek emandako ekarpenekin bete nahi dute. Lanen ondoren, azpiegitura eguneratua lortzeaz aparte, eguneko zentroak

bost plaza gehiago izanen ditu, hogeita hamar guztira.

Klinikak eta Klinikaren Lagunen Elkartek sakandarrei eskatu diete "laguntzen segi" dezaitez, "eta orain arte eman duten laguntza guztia eskertu" dute. Informazioa jaso edo ekarpenak egin nahi dutenek klinika berehala pasatu edo [www.josefinaarregi.com/eu/](http://www.josefinaarregi.com/eu/) webgunera jo dezakete. Ekarpentak aipatu webgunearen bidez egin daitezke txartel, bizum edo kontu-zenbaki baten bidez. Gainera, La Caixan eta Laboral Kutxan kontu korronteak ireki dituzte. Dirua ematen duten herritarrek eta enpresek zerga hobariak dituzte eta zati bat bueltan jasoko dute. Esaterako, 150 eurorainoko ekarpenetan

**KLINIKAK ETA HAREN LAGUNEN ELKARTEAK SAKANDARREI ESKATU DIETE "LAGUNTZEN SEGI" DEZATEN**

urteko Errenta Aitorpenean emandako zenbatekoaren %80raino berreskura daiteke.

## Atxikimenduak

Elkartetik jakinarazi dutenez, diru bilketarekin bat egiten duten pertsonen eta elkarteengana jo dute atxikimendu eske. Besteak beste, ibarreko kultura eta kirol taldeekin, gastronomia elkarteekin eta zenbait pertsona ezagunekin harremanetan jarri dira. Dagoeneko hainbat izan dira klinikari atxikimendua adierazi diotenak, esate baterako: Altsasuko saskibaloi kluba, Etxarri Aranazko abesbatza, Barranka txirrindulari taldea, Tarima Beltza antzerki taldea, Altsasuko inauteri batzordea edo Erkudengo Ama abesbatza. Haien atxikimendua bideoan jaso eta halako hainbatekin ikus-entzunezkoa osatuko dute, Altsasuko Iortia kultur guneko emanaldien aurretik proiektatuko dena, eta sare sozialen bidez zabalduko dena.



Haurrak Ziordiko festetan dantzan. ARTXIBOA

## Pediatria zerbitzuaren alde mobilizazioak egingen dira

Hainbat gurasok hala erabaki dute eta hiru ostiraletan kontzentrazioak egitea erabaki dute

### ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Altsasuko osasun eremuak pediatria lanaldi oso bat eta beste baten erdia du. Baina lanpostuak gauregun ez daude beteta. Horren ondorioz, ume eta gaztetxoek osasun arazoak beste medikuek aztertzen dituzte edo Iruñera bidaltzen dituzte osasun azterketa egitera. Horrekin batera, aldian-aldian egin behar zaizkien azterketarik gabe gelditzen ari dira 15 urte bitarteko ume eta gaztetxoak.

Horren guztiaren jakitun, Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak premiazko

batzarra deitu zuen ostiralerako. Berrogei bat guraso elkartu ziren eta, egoera luzatzen ari dela ikusita, osasun eremurako pediatria zerbitzua aldarrikatzea erabaki zuten. Otsailaren 24an, ostiralarekin, 18:00etan kalera aterako dute aldarrikapena Altsasuko udaletxe parean. Ostiral horren ondoren, gutxienez, beste bitan aterako dute aldarrikapena kaletan.

Bestalde, hogeita zazpi egun pediatarik gabe egon ondoren, Etxarri Aranazko osasun eremuak, atzera ere, pediatria zerbitzua du astelehenaz geroztik.



ARAKILGO UDALA

## Arakildarren zuhaitz landaketa

Etxeberrik hartu du aurten Arakilgo Udalaren Zuhaitz Eguna. Udalak herria aukeratu zuen bertatik abiarazi nahi dutelako Aralar mendia zeharkatuko lukeen gasbide proiektua. Etxeberrin elkartu zirenek hamar lizar, intxaurrondo eta urritz landatu zituzten gasbideak hartuko lituzkeen lurretan. Ondoren, otamena eta ipuin kontaketa izan ziren.

# Klima larrialdiari aurre egiteko planari aitortza

Udal guztiek eta Sakanako Garapen Agentziak elkarrekin egin dute; Sakanako Estrategia Planean txertatuta dago. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak sustatu ditu planoak, eta bat egin duten udalei aitortza egin zien

## SAKANA

Ibarreko erakundeek elkarlanean Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko tokiko plan edo estrategia bat landu dute. Plan horren bidez klima aldaketari aurre egiteko neurriak Sakana-  
ra egokitu dira eta, horrela, Europako araudia tokiko eskalara jaitsi da. Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsa enpresa publikoak koordinatzen duten LIFE Nadapta-CC proiektuaren barruan dago plana, proiektuan lan egin duten teknikoek laguntzaren bidez diseinatu eta finantzatu dena.

Nafarroako 154 udalerririk egin dituzte halako planak eta haiei aitortza egiteko Landa Garape-



Txomin Uhartek Baluarten egindako ekitaldian hitza hartu zuen. UTZITAKOA

neko eta Ingurumeneko Departamentuak ekitaldia antolatu zuen asteartean. Itziar Gomez Lopez kontseilariak nabarmendu zuenez, "funtsezkoa da helburu globaletik tokiko ekintzara koordinatuta dagoen lanaren eskutik pasatzea, eta tokiko erakunde, gobernu eta gizartearen arteko sarea oinarritzak izanena da europar parametroak jarraituz konpromisoen lorpenen aurrera egiteko".

## Uharteren lekukotza

Ekitaldian hainbat alkatek beraien planen inguruko lekukotza utzi zuten, eta hitza hartu zuten artean Uhartek Arakilgo alkate Txomin Uhartek Baleztena zegoen. Alkateak azaldu zuten zein lan egin zuten plana egin eta hura Sakanako Estrategia Planean barruan kokatzeko. "Udal guztiok parte hartu dugu eta horrek indarra ematen dio. Horrek berak babesa ematen die udal txikiei ere. Eta, aldi berean, elkarlaguntzeko konpromisoa adierazten du", azaldu zuen. Uhartek gaineratu zuenez, "plana dokumentu mardula da", eta hura nola bideratu zuten azaldu zuen. Hala

ere, "planak herrietara moldatzeko teknikarien premia" dagoela gaztigatu zuen alkateak, "batez ere udal txikien kasuan".

Planaren ardatz nagusiak oinarri hartuta, Uhartek Arakilen egindako egokitzapenen adibide batzuk eman zituen. Batetik, Ganbeletako iturburuko amiantodun hodia berri bategatik ordezkatzeko eta horretan argindarra sortzeko turbina jartzea. Eta, bestetik, etxebizitzaren arloak hartutako bi neurri. Aurrena, zaharberritzea sustatzeko lehen-tasuneko zaharberritze eremu izendapena lortzea. Atzema, etxebizitzaren energia birgaitzerako Itxesian eginen den Eskuhartze Globaleko Proiektua.

Jasotako aholkularitza eta plana bera positiboak izan direla nabarmendu zuen Uhartek. "Udal txikietatik saiatzeko gara lurralde antolaketan eragiten, zaharberritzea sustatzen eta urbanizazio berriak ez egiten. Bitartean, ingurumen inpaktua duten mehatxu batzuk gure lurraldea zeharka dezakete, esaterako, Abiadura Handiko Trena edo goi tentsioko lineak", gaineratu zuen alkateak.



## HH ETA LH AURREMATRIKULAZIOA


### 2023-2024

Martxoaren 6tik 10era

**IÑIGO ARITZA IKASTOLA**  
 ikastola@inigoaritza.eus  
 San Pedro, 16. Altsasu  
 948 56 29 51 / 606 03 09 66

**ANDRA MARI IKASTOLA**  
 etxarri@ikastola.eus  
 Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz  
 Kale nagusia, z/g. Arbizu  
 948 46 02 86

**TXIOKA HAUR IKASTOLA**  
 txioka.haur.ikastola@inigoaritza.eus  
 Santokristobarren, z/g. Altsasu  
 948 37 30 23 / 689 45 41 68



HITZORDU PERTSONALIZATUAK HARTZEKO AUKERA



Juan Ramon Ferrandis Breso, Jose Luis Ordoñez Fernandez eta Mikel Santamaria Rubio.

# Tren azpiegiturarako inbertsioak aldatzeko "ausardia" eskatu dute

AHT proiektuendako moratoria eta egungo trenbideak oinarri hartuta tren publiko, sozial eta jasangarria eraikitzea eskatu dute plataformek. Inbertsioak zentzuz egitea eta gizarte osoa onuradun izanen den tren sare baten aldeko mezua utzi zuten Parlamentuan

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Nafarroa Trenaren Alde plataformak gaur egungo trenbidearen azterketa eta hartan oinarritutako proposamena egin du. Mikel Santamaria Rubiok Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesio Batzordean ondorioak aurkeztu zituen hilaren 10ean. Santamariak azaldu duenez, parlamentariak "proiektua kontuan izateko ausardia eskatu genien; obrak gelditzea, moratoria eskatu eta 2022ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako 200.000 euroko partida gauzatu dadila. Diru horrekin gurearen antzeko ikerketa egin dadila, baina ekonomia baliabide handiagoekin, eta azterlan horrek kontuan izan dezala trenbidea hobetzeko eta

egokitzeko egin dugun proposamena".

Nafarroako korridorea eta Euskal Yren arteko lotura egiteko bi aukerak Sakana hartzen dute. Santamariak gogorarazi duenez, "azken albista da bi alternatibetan komunak ziren zatien ingurumen inpaktu azterketa eta bestelako ikerketa egiten zutela. Iruñetik Lakuntza ingurura arte. Aralar mendiaren geologia azterketa egin behar

**"BABESA LORTU ETA GIZARTE PRESIOA EGIN NAHI DUGU, ZERBAIT ALDATU AHAL IZATEKO"**

zuten, baina hori egin dutenaren berririk ez dugu". Hugo Moran Fernandez Ingurumeneko Estatu idazkariarekin 2021eko ilbeltzean izandako bilera gogora ekarri du: "berak Aralarko aukera baztertzen zuen. Baina ez dakigu ezer".

Santamariak azaldu duenez, "tren publiko eta sozialaren alternatibaren abiapuntua orain izanen dugu. Kolektibo, sindikatu eta gizarte mugimenduen atxikimendua bilatuko dugu, babesa lortu eta gizarte presioa egin zerbaitek aldatu ahal izateko. Alternatiba herriz herri ezagutarazten joanen gara". Jakinarazi duenez, zenbait alderdirekin dagoeneko bildu dira, baina parlamentuko agerraldiaren

ondoren gainontzekoekin biltzeko aukera izatea espero dute. Nafarroako Gobernuak ordezkariarekin ere batzartu nahi luke plataformakoei. Espainiako Gobernuari ere helaraziko diote.

## Koordinazioa

Parlamentuko Santamariak ondoan izan zituen Jose Luis Ordoñez Fernandez, Tren Publiko, Sozial eta Iraunkorren aldeko plataformen Estatuko Koordinadorako bozeramailea eta Juan Ramon Ferrandis Breso, tren gidaria eta, besteak beste, CGT-ko trenaren defentsarako plataformako koordinatzailea.

Koordinadoran biltzen dira 11 erkidegoetako plataformak. Ordoñezek azaldu duenez, "plataformek bizi bat baino gehiago izan dute. Azken hau 2017an jaio zen, gizarte mugimenduan beherakada bat egon ondoren. Aurretik, plataformak trenbidearen defentsan zentratuta egon ziren, estatu guztian erabat utzia zegoen trenbidea eta hura defendatzeko premiak sorrarazi zituen".

**"TRENBIDEETARAKO INBERTSIOAK SOZIALA ETA JASANGARRIA EZ DEN TRENERAKO DESBIDERATU DIRA"**

Koordinadorak "ez ditu plataformak ordezkatzeko. Koordinazio lana egin, haien artean erlazioak izateko babesa eman eta informazio eta kontaktuen trukea ahalbidetzen ditu", azaldu du Ordoñezek. Gaineratu duenez, "plataforma bakoitzak bere planifikazioa du, baina estatuko edo Europako mobilizazioak prestatzeko eta bateratzen ditu". Jakinarazi duenez, Europako 7 herrialdeetako erakunderekin harremanak dituzte.

Tren azpiegituraren egiten diren inbertsioak "soziala eta jasangarria ez den tren batera asko desbideratu" direla salatu du Ordoñezek. Horrek plataformen berpiztea ekarri zuen. "Orain ez da soilik trenaren defentsa, proposamenak ere egiten ditugu. Gizarteari, administrazioei eta honen gainean erabakiak hartzen dituztenei esan nahi diegu zer egin, noiz egin eta nola egin. Sozietate zibila entzun dezatela erabakiak hartzen dituztenean", eskatu du.

## Nahia

Haien helburua da "tren zerbitzua baliagarria izan dadila pertsonen eskura izan ditzaten ondasunak, zerbitzuak eta gainontzeko pertsonekin harremana. Ez dadila baliagarria izan zentzurik gabe mugitzeko". Ordoñezek gaineratu duenez, "funtsezko hiru elementu horietan positiboa izatea lortzeko trenbideak behar du beste garraio moduekin elkarlana, bere funtzioa positiboa izan dadin. Horretarako, sistema multimodalak hiru oinarri izan behar ditu: trenbidea, ibilera eta bizikleta. Gainontzekoak osagarriak izan behar dute. Horrela, trenbidea pertsonen eta merkantzien garraio bide masiboa litzateke. Zeren ez ditugu merkantziak ahazten". Ferrandisek ziurtatu duenez, erabaki horiek hartuta, "trenbideak AHTren zerbitzu berme berak emanen litzateke, askoz ere kontsumo txikiagoa luke eta lurraldea eta paisaia gutxiago kaltetuko luke. Gainera, lurraldeak egituratzen segituko luke".

Hirurek "akats izugarritzat" dute bakarrik pertsonendako diren lineatan inbertsioak egitea. "Akats hori are izugarriagoa izan da gehiegizko abiadura altuko trenendako egin dutelako. Behar duten energia kontsumoa ez dator bat gizarteak duen energia egoerarekin. Desegokiak izan



diren inbertsio horiek zuzendu behar dituzte, bukatu egin behar dute". Horregatik, plataformen iritziz, "halako inbertsioen matoria egin behar du".

Ferrandisek bat egin du eskararekin: "frogatua dago abiadura handiak zer dakarren. Nora-bide aldaketa eta, beste azterketa bat egiteko, proiektu horiek guztiz gelditzea eskatzen dugu. AHT horien alternatiba izan den proposamen bat nahi dugu". Biek bere egin dituzte Araba eta Nafarroako plataformek aldarrikatzen dutena: "behar bezala erabiltzea ditugun azpiegiturak, eguneratuz potentziatu, behar denean trenbidea bikoiztuz edo bihurtzeko aukera emanez eta lortuz trenbide beretik mota guztietako tren zerbitzuak izatea: aldirietakoak, erregionalak, distantzia luzekoak, gauekoak eta merkantziak". Gaur egungo teknologiak horretarako aukera ematen duela gaineratu du.

Inbertsio horiek "gizarteari zerbitzu ona eskaintzeko aukera" emanen luketela ziur da Ordoñez. Aldi berean, gaineratu duenez, "ez dago jendea desplazatu beharrik, joan-etorrian ibiltzera behartzea. Giza eskalan guztia eskuragarri egotea lortu behar da, hainbeste joan-etorri beharrezko izan gabe".

Horretarako, "lurralde antolaketaren bidez lortu behar da gutxienez mugikortasunarekin eskuragarritasun handiena izatea. Beraien inbertsioak aglomerazio handiei erreparatzen die soilik, landa eremua bazterrean uzten dute eta jendea lanera, ikastera, medikura eta erosketetara joateko asko mugitzea nahi dute". Ferrandisek gaztigatu duenez, "hiri handiez ari denean ez da Iruñeaz ari".

Europar Batasunak trenbideen inguruko planteamendu batzuk ditu. Mediterraneoko Korridorea Espainian garatzeko gobernuaren ordezkari Josep-Vicent Boira Maiquesak Ferrandisi esan zion Europako dirulaguntzak jasotzeko estandar batzuk bete behar direla: abiadura jakin bat, modelo jakineko trenbideak eta zabalera estandarra. "Beraz, ezin dugu aukera izan. Gure ustez, estandarrak aldatzeko eta zuzentzeko daude. Sekulako gastu hori seguru gertatuko da, batez ere, eraikuntzaren multinazional handien ezohiko presioa dagoelako".



Plataformetakoek Nafarroako Parlamentuan azalpenak eman zituzten bitartean kanpoan elkarretaratzea egin zen. UTZITAKOA

### Inbertsioa eta gastua

Ordoñezek azaldu duenez, "orain ez da hasieran bezala. Madrid-Badajoz-Lisboa arteko abiadura handiko linea sustatzen ari dira, baina trafikoa mistorako izan dena. Dagoeneko ez da soilik pertsonak garraiatzeko". Baina orain arte egindakoak eta proiektatutako asko ez dira halakoak". Horregatik ziurtatu du: "aldaketa dago, baina ez da nahikoa. Haiek obra berria egitean temata daude".

Madril eta Sevilla lotu zituen lehen AHT hartatik 31 urte pasa dira. "Ibiltzede objektiboa du eta badakigu AHTko inbertsioak ekonomia baliabideen, ingurumenaren eta gizartearen xahutzea izan direla. AHTk pasatzen dituen eskualdeak desegituratu egiten ditu", nabarmendu du Ferrandisek. Tren gidariak gaineratu duenez, "gauregun zeuden ohiko trenbideei paraleloak diren beste batzuk ditugu. Lurraldea, atzera ere, hondatu du. Ohiko lineen inbertsioak jan dituzte. Eta zerbitzuan lehiarik ez izateko, praktikoki, minimoen azpitik utzi dituzte".

Ferrandisek azaldu duenez, "Madril-Sevilla linea eraikitzeke egin zen inbertsioaren heren batekin estatuko trenbide guztiak bikoiztuko lirarteke eta trenek 220 km orduko abiadura hartzeko aukera lukete. Gauzatu balitz

**"NORABIDE ALDAKETA, BESTE AZTERKETA BAT, ETA AHT PROIEKTU GUZTIAK GELDITZEA ESKATZEN DUGU"**

bidaiari eta merkantziendako trenbide bikoitz elektrifikatua izan den gure. 13.000 km trenbide arrazoizko abiadura izan den genituzke, eta ez gure Madril eta Sevilla arteko AHT linea esklusiboa izan dena".

AHTk diren "ekonomia xahutzea" azaltzeko Ferrandisek jakinarazi duenez, "25 urtetan 93 milioi euro gastatu dira. Onuradunak tren erabiltzaileen %4 besterik ez dira izan. Ohiko trenbidea erabiltzen duen gainontzeko %96ak soilik inbertsioen %29 besterik ez du jaso, eta hainbatetan %10 edo %5 besterik ez dira izan". Bestela esanda, "badugu dirutza kostatu den eta pertsona onuradun gutxi dituen trenbide bat. Eta gainontzeko pertsonak erabiltzen dutenak oso inbertsio txikiak jaso dituzte. 31 urteren ondoren horrek ohiko trenbidea ia minimoen azpitik utzi du, etengabeko hondatze handia duena, eta tren zerbitzu falta, haren hondatzea eta, baita lineen itxiera ere ekarri duena". Ordoñezek ziurtatu duenez, "azpiegitura berriak egitea, eroak gainera, ez da beharrezkoa".

Bestetik, Ordoñezek gaineratu duenez, "AHTek arazo ikaragarria dute: abiadura horietan joateko energia izugarri kontsumitzen dute. Energia kontsumo hazkunde hori ez da lineala, esponentziala baizik. Ez da batere eraginkorra".

### Interesak

Ordoñezek azaldu duenez, "AHTk ez dira erabiltzen. Horregatik, saiatzeko ari dira beste enpresa batzuk sartzen eta txarte-

len prezioak jaisten. Jendeak aldirietako eta eskualde trenak erabiltzen ditu". Ferrandisek zehaztu duenez, AHTren erabiltzaile horiek diru ahalmen handikoak dira. "Guztionean ari gara zerbitzu hori ordaintzen. Esaterako, Valentzia eta Madril arteko txartela 9 edo 78 euro kostatzen daiteke. Baina aulki bakoitzaren benetako prezioa 340 eurokoa da. Egunero 16.000 plaza daude, haien %49 bete ziren azken momentuan. %49 horren zati handi bat eta gainontzeko plazen %51 gizarte guztiak ordaintzen du Estatuaren Aurrekontu Orokorren bidez. AHT mantentzeratzen dirutza bideratzen dugu", laburbildu du Ferrandisek. Azaldu

duenez, AHTko trenbidearen 300 metro egiteak balio duen 11 milioi euroekin Utiel-Cuenca-Aranjuez moduko linea zabalik lego ke urte guztian.

Ferrandisek ziurtatu duenez, eraikuntzaren multinazional handiei interesatzen zaie halako azpiegitura lanak egitea. Bi adibide eman ditu. Valentzia eta Xativa (55 km) artean duela 14 urte eta erdi eraikitako AHT linea dago. "Handik ez da tren bat bera ere pasa. 700 milioi euroko kostua izan zuen. Eraiki zuenak kobratu du lanagatik, baina gizarteari ez dio mesederik egin oraindik; ikusiko dugu zenbat urte gehiago behar duen". Murtzia eta Almeria artean (170 km inguru) abiadura handiko azpiegituren 50 km baino gehiago daude, tartean 20 km baino gehiagoko tunelak eta 500 metro baino luzeagoak diren zubidie batzuk dituen. "Guztira mila milioi euroko kostua izan dute. 14-15 urte daramate erabili gabe. Hori egiten hamarkada edo hamarkada eta erdi egiten pasako dute".

Tren gidariak azaldu duenez, "inbertsio izugarri handi horrek ez du gizartearen eraginik. Guk baliabide horiek optimizatu nahi ditugu. Horretarako, dugunarekin kontsekuente izan behar dugu. Dirua badago, beste gauzetan gastatzen ari baitira. Beraz, Europako trenbide sare onena izan den gure ohiko trenbidean inbertitu izan bagenu".



## Itaiak zaintza eta garbiketa sektorearen egoera salatuko du

Bi sektoreetako baldintzak hobetzeko antolakuntzarako eta borrokarako deia egin du

SAKANA

Itaiak zaintza eta garbiketa sektorearen egoera aztertu du. Ondorioztatu dutenez, bi sektoreetako "lan baldintza penagarriak beharrezkoak zaizkie patronal eta enpresa sareei urtean milioika euroko irabazia izateko". Itaiatik gaineratu dutenez, "instituzio zein alderdi politikoek ez diote egoera horri aterabide errealik ematen".

Gaztigatu dutenez, zaintza eta garbiketa sektoreetan "egoera horri aurre egiteko borroka ugariak badira ere, oso modu isolatuan eta babes sozial eta mediatiko eskasa dute. Horregatik, beharrezkoa da borroka horiek lehen lerroan kokatu eta borrokan batasunaren bitartez gaitasunak handitzeari ekitea". Itaiako kideen iritziz, "arazo horiei aurre egiteko borrokek antolakuntza politikoan aurrera pausoak emateko balio behar digute, hau da, osotasun kapitalista gainditzeko norabidean kokatu behar ditugu". Hori dela eta, "emakumeon batasun politikoa indartuz eta egunerokoan bizi ditugun problematikei aurre eginez, gizarte sozialista baten eraikuntzarako baldintza politi-

koak garatzen" jarraituko dutela gaineratu dute.

Eta zaintza eta garbiketa sektoreko baldintzak hobetzeko antolakuntzarako eta borrokarako deia egitearekin batera, "ezinbestekoa" ikusi dute egoera horri aurre egiteko zenbait aldarrikapen plazaratzea, esaterako: soldata igotzea, ratioak jaiste edota lan baldintzak okertzen dituzten enplegu agentzia eta azpikontratekin bukatzea.

Bi deialdi ere egin ditu. Nafarroako 0-3 Plataformaren ibilbidea eta borroka aztergai izanen du Eider Garde Mazkiaranekin otsailaren 19an, igandearekin, 17:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikineko 1. solairuan. Solasaldiak aukera emanen du hezitzaileek bizi duten egoera eta bizi-penak lehen eskutik ezagutzeko eta hausnartzeko. "Pairatzen ari diren arazoei aurre egiteko saretearen eta antolatzearen beharra azpimarratuko dugu, baita emakume langileok subjektu politiko aktibo gisa jarduteko ezinbestekotasuna ere". Azkenik, otsailaren 25ean, larunbaterekin, 13:00etan, Nafarroako Gobernua- ren egoitzaren parean mobilizazioa deitu dute.

## DUELA 25 URTE...



### Berritasunak inauteri segizioan

Orritz dantza taldeak hirugarren urtez inauteri mozorro kalejira antolatu zuen larunbatez. Jendea parte hartzera animatzeko eta ikuskizuna aberasteko asmoz segizioan ezkontza bat irudikatzea otu zitzaion. Ezkonberriek herria gurdi gainean zeharkatu zuten, haiek batera ezkonsaria eramaten zuten. Atzetik ezkontzako segizioa zuten. Haietaz aparte mozorro eta musikari ugari osatu zuten ihote segizioa.

# Asierren espetxeratzea salatzeke, manifestazioa

Preso etxarriarraren hirugarren gradua baliogabetu du Espainiako Auzitegi Nazionalak eta ostiralaz geroztik Martuteneko espetxean preso dago Asier Karrera Arenzana. Espetxeratzea salatzeke manifestazioan parte hartzera deitu du Sarek

ETXARRI ARANATZ

Legediaren arabera kartzela barruan presoak hiru gradutan banatuta daude. Graduaren arabera espetxe barruko bizi baldintzak eta onurak desberdinak dira presoendako. Sareko kide Mikel Mundiñano Larrazak azaldu duenez, 1. gradua "zorrotzena eta baldintzarik gogorrenak" dituena da. Espetxea espetxe barruan. "Euskal presoaren kasuan, zigorraren ia guztia baldintza gogorrenetan eta lehenengo gradu horretan pasatu dute", gaztigatu du. 2. gradua "nolabaiteko 'normalitatea' da, hainbat aukera dituzte eta espetxe ibilbide bat egin dezakete. Esaterako, zigorraren erdia beteta daukanean, baimendutako irteerarako eskubidea daukazu. Pixkanaka nolabaiteko puntuak lortzen dituzu eta horrek 3. gradua eskatzeko aukerak ematen dizkizu". 3. gradua "nolabaiteko erdi askatasun" gisa definitu du Mundiñanok. "Hainbat eratako 3. graduak daude: kontrolerako eskumuturrekoa ezarri eta espetxera ez bueltatzea edo astelehenetik ostegunera kartzelara bueltatzea eta egunean zehar lan egin eta asteburuak etxean ematea". Azken hori orokorra dela gaineratu du. Espetxe ibilbidearen azken maila baldintzapeko askatasun da, "aurretik egin duzun ibilbide horretan oinarrituta dagoena. Hura lortzeko zigorraren hiru laurdenak beteta izan behar dira".

Presoak gradu batetik bestera pasatzeko baldintzak betetzen dituen edo ez kartzelako Tratamendu Batzordeak erabakitzen duela azaldu du Sareko kideak. "Baina euskal presoak salbuespeneko legedi baten edo neurri batzuen pean egon dira urtetan eta halakorik ez dute izan", zehaztu du. Martuteneko Tratamendu Batzordeak Asier Karrera Arenzanaren 3. graduari oniritzia eman eta Eusko Jaurlaritzako



Ostiralean protesta bilkura egin zen; gaur, 20:00etan, prentsaurreko jendetsua.

## "EZ DAGO INONGO ARGUDIORIK PRESOEI ETXERATZE PROZESU HORRETAN OZTOPOAK JARTZEKO"

Justizia Sailak eman egin zion lastailaren 6an. Ordutik Karrera astean lautan Donostian zortzi orduko lana egitera atera eta, ondoren, lotara bueltatzen zen, eta asteburuetan familiarekin egoten zen Azkoitian. Espainiako Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak bigarren gradura itzuli eta Martuteneko espetxera bueltatzea agindu zion ostiralean. Sareko kideak azaldu duenez, Karrera 2000ko azarotik dago preso, eta zigorraren hiru laurdenak maiztean beteko ditu. "Karrerak baldintza guztiak betetzen ditu 3. graduaren egoteko. Legea eskuan, baldintzapeko askatasuna ere berehalakoan lortu beharkoluke", zehaztu du. Gaineratu duenez, "zorritzarrez Karrera ez da kasu bakarra". Tratamendu Batzordeak, atzera ere, 3. gradua eskatuko duela suposatzen du.

Mundiñanoren iritziz, "espetxe politikaren baitan aldaketak ematen ari dira eta urrutize politikarekin bukatzeko ere. Fiskaltzak, Auzitegi Nazionalak, etxeratze prozesu horren aurrean oztopoak jartzen jarraitzen du, herri honek behar duen konponbide eta elkarbizitza bide horretan oztopoak jartzeko". Sareko kidearen iritziz, auzitegiaren erabakiak ez du bat egiten ez Euskal Herriaren dagoen errealtatearekin ezta bizi dugun momentuarekin ere. Euskal gizarteak argi adierazi du etengabe honi konponbide bat eman behar diogula, konponbidean jarri behar ditugula azken batean mantentzen ari diren sufrimendu egoera guzti horiek. Madrilen batzuk oraindik tematuta daude hemen ez dela ezer pasatu eta konponbideari oztopoak jartzeko interesak" daudela gaineratu du. Hori salatzeke eta preso etxarriarrak 3. graduaren egoteko baldintzak betetzen dituela azpimarratzeko otsailaren 24an, ostiralarekin, 19:00etan Sare herriarrak deitutako *Gradu erregrisorik ez. Asier etxera* leloa duen eskualdeko manifestazioa hartuko du Etxarri Aranatzek.

# IHOTEAK

## IRURTZUN

Ostiral goizean Atakondoa ikastetxe-ko ikasleek hasiera emanen diete Irurtzongo ihoteei bertan moztorro festa eginen dutelako. Arratsaldean, Iskidiko izaki mitologikoak aterako dira: Basajaun, Basandere, Mikelatsoak, galtzagorriak, herensuge, gizotso, akerbeltz... eta haiekin batera fara hotsak entzungo dira herrian Pikuxarrek ere joaldunen kalejira antolatu duelako. Bestetik, musika eskolaren fanfarrea ariko da ere.

Larunbatean moztorro kuadrillak itzuliko dira Irurtzuneran, izan ere, aurreko urtean pandemia zela eta ez zen desfilerik egin eta aurtun eguerditik mota guztietako moztorroak ikusiko dira kaleetan. Bazkaltzera elkar-tu ondoren, moztorro kontzentrazioa eta desfilea izanen dira plazan.

### OTSAILAK 17 Ostirala

Goizez, Inauteriak Atakondoa ikastetxean.

18:30 Herri ihoteak: Iskidiko pertsonaiak eta joaldunak. Pikuxarrek antolatuta.

Musika eskolaren fanfarrea. Ondoren, Miel Otxin erreko dute, Gernika parkean.

### OTSAILAK 18 Larunbata

13:00 Kalejira Galtzagorri txarangarekin.

14:15 Bazkaria, jubilatuen elkartean.

14:30 Inauteri herri bazkaria, eskolako jantokian. Erga Larreak antolatuta.

17:00 Kalejira Galtzagorri txarangarekin, eskolatik.

18:00 Moztorro kontzentrazioa, plazan.

18:30 Desfilea eta musika, plazan.

23:00-07:00 Gau elektronikoa: Elena Barker eta Bendiak-Gordon, Larrazpin. Larrazpik antolatuta.



## HIRIBERRI ARAKIL

Arakilgo herrian otsailaren 25ean, larunbata, ospatuko dituzte ihoteak.

## UHARTE ARAKIL

Larunbatean moztorroak lagun kuadrillak bazkaltzera elkartuko dira eta, ondoren, kalejira eginen dute. Haiekin batera aurtengo kintoak joanen dira.



## ARRUAZU

Arruazun igandean ospatuko dituzte ihoteak. 17:00etan etxe etxe eskean ibiliko dira eta 19:00ak aldera merendua eginen dute Itur-Gain elkartean. Antolakuntzatik Euskal Herriko iho-teetako pertsonaien moztorroak janzteko deia egin dute, baina bakoitza nahi duen bezala moztorrotu daiteke.



## LAKUNTZA

Gai edo pertsonaiaren bat aukeratu eta Lakuntzako lagun taldeak larunbat eguerditik aterako dira moztorrotuta kalera. Aurtun, gainera, moztorro lehiaketa antolatu dute eta moztorro hobere-na dutela erakusteko desfilea eginen dute, plazan. Parte hartzaile guztiak izanen dute saria.

Astearte ihotean, otsailaren 21ean, zatamarroak izanen dira herriko



UTZITAKOIA

**IRAÑETA** Larunbatean Irañetan ihote segizioak kalejira egin zuen herrian zehar eta Atxun Zarkoa herrian barna eramaten zuten.

jaun-andre eta jabeak. Zatarroen dantza egin ondoren, zigorrak banatzen ariko dira. Zirikatzeo lakuntzarrek "Zatamarro begi gorri, urtian behin etorri" esanen diete eta zigorra ez jasotzeko lasterka ibili beharko dira.

### OTSAILAK 18 Larunbata

13:00 Salda eta txaranga, plazan.

13:30 Desfilea eta moztorro lehiaketa, plazan.

15:00 Bazkari autogestionatua, kultur etxean.

Bazkalondoan, txaranga eta



moztorro lehiaketaren sari banaketa.

17:30 DJ Inaxio, plazan.

21:00 Zezensuzkoa.

### OTSAILAK 21 Asteartea

17:00 Txokolata eta musika, plazan.

18:30 Zatarroen dantza, plazan. Bitartean, zatamarroak aterako dira.

19:00 Sardina jana, plazan.

20:30 Zezensuzkoa.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

**Hitzaldia**

Martxoak 6 | 18:00 | **ARBIZU** (Jubilatuak)  
**Iratxe Retolaza**  
**IRAKURBIDE FEMINISTAK**  
**EUSKAL LITERATURAN**

Apirilak 26 | 19:00 | **ZIBORNA** (Liburutegia)  
**Miren Agur Meabe**  
**NOLA ATONDU (DUDAN NIRE)**  
**GELA BAT NORBERARENA**

**Solasaldia**

Martxoak 24 | 18:00 | **ITURMENDI** (Jubilatuak)  
**Maddi Ane Txoperena**  
**EZ ERRAN INORI**

**LITERATURA**  
**-geraldiak** 2023  
**SAKANA**

Organizatzailea: **Mank.**  
 EUSKAL LITERATURA  
 ERREKUPERTZAILUA

Elkarlanean: **Elkarlanean**  
 Eusko Legebiltzarra  
 Euzko Legebiltzarra

**ARBIZU**

Bi egunetan ospatuko dituzte inauteriak Arbizun. Otsailaren 18an, larunbata, hiri ihoteak ospatuko dituzte eta mozorro desfilea egingen dute plazan. Txatamorrueen egunean, otsailaren 21ean, asteartea, aterako dira: zaku edo arpilera oihala, jantzi zaharrak, ohegainekoak... eta zigorra eskuan jendea berotzeko gogoz aterako dira kalera. Bukaeran, aittun haundiya eta amin tikiya erreko dituzte, txatarrei edo ihotei amaiera emanez. Inauteri garaian Arbizuko kintoak eskean aterako dira ere, otsailaren 19an, igandean.

**OTSAILAK 18 larunbata**

12:30 Gosaria eta mozorroen elkartzea, plazan.

13:15 Mozorroen desfilea.

15:00 Bazkaria, frontoian.

18:00 Musika festa DJ Faktoriaren eskutik, frontoian.

**OTSAILAK 21 Asteartea**

12:00 Pixket eskien.

17:00 Haurrendako jolasak, kintoen eskutik.

17:45 Txokolatada, plazan.

18:00 Arbizuko dantzarien eta abesbatzaren kalejira.

20:00 Aittun haundiya, amin tikiya eta txatamorrak.

21:30 Afaria, Aldabiden. Kintoek antolatuta.

**UNANU**

Txuriz jantzita, aurpegian metalezko katolekin estalita eta zigorra eskuetan aterako dira beste urte batez Unanuko mamuxarroak kalera. Mamuxarroekin batera mutuak doaz ere. Lasterkak nonahi ikusi ahalko dira igandean eta asteartean Ergoienako herrian.

**OTSAILAK 19 Igandea**

17:00-18:00 Mamuxarro txikiak.

Ondoren, auzatea musikaz alaituta.

**OTSAILAK 21 Asteartea**

17:00-18:00 Mamuxarro handiak.

Ondoren, auzatea musikaz alaituta.

Iluntzean, puska biltza.

22:00 Herri afaria, Danok bat

elkartean.

**LIZARRAGA**

Lizarragako elkartean elkartu eta kalez kale ibiliko dira mozorrotutakoak. Herri bazkarian elkartuko dira eta, bazkalondoren, kalejirarekin jarraituko dute.

**OTSAILAK 18 Larunbata**

13:00 Mozorroak elkartean bilduko dira.

Ondoren, herritik buelta emanen dute.

14:30 Herri bazkaria, elkartean.

17:30 Elkartetik atera eta herrian zehar buelta emanen dute.

**ETXARRI ARANATZ**

Aurreko hiru ostegunak, otsailaren 2an, 9an eta 16an, kintoak txatarrez jantzi eta kalez kale ibili ondoren, otsailaren 18an, larunbata, Zalduniyote eguna ospatuko dute Etxarri Aranatzen. Egun horretan irudimena lagun etxarriarrek mozorro anitzez jantzita hiri ihoteak ospatuko dituzte.

Astierteiyote egunean, otsailaren 21ean, aldiz, txatarak itzuliko dira eta oraingoan, kintoak ez ezik, etxarriarrek txatarrez eta trapu zaharrez aterako dira kalera. Kixkimau Pintto zakuz jantzitako pertsonaia, lastoz betea, eta eskuan makil bat duena kalejiran eramanen dute, amaieran, plazako zelaian erretzeko.

**OTSAILAK 18 Larunbata**

ZALDUNIYOTE -HIRI IHOTEA-

12:00 Jolasak haurrendako, kintoek antolatuta.

13:00 Etxarri kantuz, herrian zehar. Auzatea, tabernarien eskutik. Triki poteoa, EGaren eskutik.

18:30 Mozorro txapelketa, EGaren eskutik.

20:00-22:00 / 23:00-02:00 DJ

Txumasketa, plazan.

**OTSAILAK 21 Asteartea**

ASTIERTEIYOTE -HERRI IHOTEA-

09:30-14:30 Kalejira, Txaranga Berriak txarangarekin. Kintoek antolatuta.

12:00 Kili, Kolo eta Mokorekin Parranda tutiplen animazioa eta dantzaldia, plazan.

13:30 Txarangaren kontzertua, plazan.

17:30 Txokolatada, plazako estalopean.

17:30-21:00 Gauargi taldearekin dantzaldia, plazan.

19:00 Kixkimau Pinttoren segizioa kalez kale txistulariekin. EGAK antolatuta.

19:30 Auzatea. Kintoek antolatuta. Ondoren, Kixkimau Pinttoren erretzea, plazako zelaian. EGAK antolatuta.

**BAKAIKU**

Kamarro askok zapiz estaltzen dute aurpegia, buruan txanoak eraman ditzakete edota edozein animaliaren burezurra edo adarrak. Soinean arpilerak edo zakuak eramaten dituzte eta batzuk ere odolez zikintzen dira. Farak daramatzate. Eskuan hiruzpalau metroko zigorrak dituzte. Ihote segizioan gurdi bat eta bi kamarrok tira egiten dioten golde bat eramaten dituzte ere. Larunbatean aterako dira aurtengo kamarro handiak eta txikiak "Kamarro, txirri txarro oiuharen atzean".

**OTSAILAK 18 Larunbata**

14:30 Herri bazkaria, elkartean.

17:30 Kamarro kalejira, plazatik.

Ondoren, su piztea.

**ITURMENDI**

Larunbatean mota guztietako mozorroak ikusiko dira Iturmendiko kaleetan. Asteartean, aldiz, jitomoxorroek hartuko dituzte kaleak; buruan lastozko txanoa, aurpegia estalita joaten dira, zakua gorputzean eta zigorra eskuan daramatzatela. Haien aurrean korrika egin behar da zigorra jaso nahi ez bada.

**OTSAILAK 18 Larunbata**

14:30 Herri bazkaria, Aitzkozar

elkartean.

18:00 Txokolatada.

18:30 Kalejira txarangarekin.

Poteoa eta bokatada, gaztetxean.

**OTSAILAK 21 Asteartea**

HERRI INAUTERIAK

19:00 Txokolatada.

19:30 Kalejira.

21:30 Afaria, Aitzkozarren.

**URDIAN**

Bihar, larunbata, mantaguna ospatuko dute Urdiainen. Arpilerazko mantak edo zakuak soinean, aurpegia estalita eta zigorra eskuan aterako dira urdiain-

darrak eta "Mantaguna, guna, guna, guna, zakuan kunkuna" abesten dutenen atzean ariko dira arratsaldean.

Igandean eta asteartean mamoxarroak aterako dira: eskuetan zigorra eramaten dute, aurpegia estalita, farak bizkarrean eta haietako batzuek ardi narruak daramatzatela soinean, beste batzuek ohe estalkiak eta besteren batzuek txano konikoa. "Mamoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero" abesten dutenen atzean zigortzeko asmoz ariko dira.

**OTSAILAK 18 Larunbata**

MANTAGUNA

16:30-20:00 Mozorroak kalean.

**OTSAILAK 19 Igandea**

17:00-20:00 Mamoxarro txikiak.

Ondoren, txokolate jana, plazan.

**OTSAILAK 21 Asteartea**

17:00-20:00 Mamoxarro handiak.

Ondoren, kuadrillen sorgin afariak.

**ALTSASU**

Ipuinetako pertsonaiak, superheroiak, animaliak... irudimena izanen da muga otsailaren 19an, igandea, inauteri txikietan; haurrendako inauteriak izanen dira. Eguraldi txarra egingo balu frontoian izanen litzateke ospakizuna.

Altsasuko ihoteetako egun handia otsailaren 21ean, asteartean, izanen da, herri ihoteekin. Goizean puska biltzea egingen dute eta herri bazkarian elkartuko dira. Ondoren, Zumalakarregi plazara joanen dira herri ihote txikiak egiteko; protagonistak momotxorro, sorgina, juantranposo eta abar txikiak dira. Ihote segizio txikiak kalejira egingen du eta Foru plazara iritsiko dira. Momonsuzkoa atera arte.

Ihote segizioak Zelandiko bidea hartuko du kalejiran eta, bertan, odolaren errituala deitutakoa egingen dute, hau da, odolez zikinduko dira. Ondoren, mozorroturik gabekoak Zelanditik aterata beharko dira. Denak prest, Zelandiko atea irekiko dira ihote segizioak

**kaxeta**  
Guztira 1000000

Ongi pasa ihoteetan!

fotoakopia@kaxeta.net  
628 542 519 | 948 460 477

**Txalaparta**

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

ohiko ibilbideari ekiteko. Ihoteetan parte hartzea borondatezkoa dela ohartarazi dute antolakuntzatik, eta arretaz jokatzea eta segurtasun tartea gordetzea gomendatzen dute. Ez dira udalaren ez eta Inauterietako batzordearen ardura izango pertsonengan edota materialetan sortutako kalte edota erredurak. Zelai, Alzania eta Bakea kaleetan ezingo dira kotxeak aparkatu.

Altsasuko inauteriek otsailaren 25ean, larunbatean, segida izanen dute Piñata edo hiri inauterietan.

#### OTSAILAK 18 Larunbata

18:00 Altsasuko ihoteen emanaldia eta txokolate jana, Intxostiapunta gazte gunea.

#### OTSAILAK 19 Igandea

##### INAUTERI TXIKIA

11:30 Kalejira Altsasuko erraldoiekin eta Altsasuko eta Etxarri Aranazko gaiteroekin, Intxostiapunta gazte gunetik.

17:30-19:30 Haurren maskarada:

Txokolate jana eta Xaboir taldearekin mozorro dantza. Bukaeran, zezensuzkoa, Foru plazan (eguraldi txarrekin Burunda frontoian).

#### OTSAILAK 21 Asteartea

##### HERRI INAUTERIAK

12:30 Puska biltzea, Ferialekun eta Alde Zaharrean.

14:00 Herri bazkaria, Burunda pilotalekuan.

16:30 Inauteri txikiaren kontzentrazioa eta txokolate jana, Zumalakarregi plazan.

17:00 Inauteri txikiaren irteera Txorongo Txarangarekin eta Altsasuko Gaiteroekin, Zumalakarregi plazatik.

18:00 Inauteri txikia Foru plazara iritsi. Ondoren, Momonsuzkoa, Foru plazan.

18:30 Kalejira, Foru plazatik Zelandira.

Torraden dastaketa, Gure Etxean.

18:45 Inauteriaren kontzentrazioa eta odolaren errituak, Zelandin.

19:00-22:00 Cafe Irlandés taldearen dantzaldia, Foru plazan.

19:30 Inauteri segizioaren irteera, Txorongo Txaranga, Zangitu fanfarrea, Altsasuko Txistulari eta Gaiteroak eta Txapiru Trikitixa Eskolarekin, Zelanditik.

20:00 Dantzarima Dantza Konpainiaren Akelarrea, Zumalakarregi plazan.

21:00 Inauteri segizioaren irteera Foru plazara, ezkil errepika, dantza eta mozorro kentzea.

23:00 DJ Jotatxo, Haritza tabernan.



#### OLAZTI

Mari Arroka euskal mitologiaren jainkosa bat da. Istorioaren arabera, kontatu du Adelaida Kintana Olaztiko Ihoteetako elkarteko kideak, Mari Arroka Aizkorin zegoen amarekin eta jolasean ari zela ez zion amari kasurik egin eta ama haserretu zen. Mari Arroka ere haserretu zen eta Jainkosa zenez jauzi bat eginez suzko igitai baten gainean hegaka atera zen eta Aizkorritik Urbasara joan zen. Olaztiko adineko jendeak duela zenbait urte kontatzen zutenenez, ohikoa zen Mari Arroka hegaka ikustea Urbasara joaten zirenean.

Horregatik, Mari Arroka Olaztiko ihoteetako pertsonaia bat da eta, hain zuzen, ihoteei ongietorria ematen die. Gaur, ostirala, Olaztiko Gaztetxeak Mari Arrokaren kondaira kontatuko du antzerki baten bidez, plazan. Ihoteak hasiko dira Olaztin.

Larunbatean izanen da Olaztiko ihoteetako egun handia herri ihoteen ospakizunarekin. 1992. urtean berreskuratu zituzten ihoteak. Kintanak adineko jendearekin hitz egiten herriko ospakizun zaharren berri izan zuen, haien artean ihoteak, eta berreskuratzeko erabaki zuten. Garai bateko eta gaur egungo ihoteak alderatuz "asko aldatu" badira ere, ihote segizioa osatzen duten pertsonaiek antzekoak dira: Zamar handia, zamar txikia eta neskek. Haiekin batera alkatea, apaiza, medikua, almiltea eta basozaina joaten dira. Izan ere, ihoteetan puska biltzara joa-

ten zirenean gehienbat zerealak eskatzen zituztela esan du Kintanak, eta jasotakoa udeletxera eramaten zuten eta udalak saldu egiten zuten.

Zamar handiak "ikaragarrienak" zirela azaldu du Kintanak. Gurdi bat eramaten zuten eta bertan lurra eta "auskalo zer" eramaten zuten jendea-ri botatzeko. "Dena" estalita zeramaten; buruan ipurukoa, bi narru eta, beheko aldean, gona bat. Gonaren azpian "deus ez" eta emakume bat ikusten zutenean gona altxatzen zuten. "Gaur egun zibilizatuagoak gara eta pentsatu nahi dut zer edo zer eramaten dutela mutil zamar handiek". Zamar txikiak haurren atzetik korrika egiten zuten. Aurpegia beltza eta estalita eramaten zuten eta jendea zikintzen saiatzen ziren. Narru bakar bat darimate sorbaldan eta behean maoizko prakak.

Garai bateko ihoteetan "noizean behin" neskaren bat ateratzen zela kontatu du Kintanak, "beti anaieren ondoan". Neskek ohegaineko bat eramaten zuten eta luzeegia zenez tolestent zuten bi kapa sortuz. Elizak batez ere emakumearengan "izugarrizko" zapalkuntza izan duenez, neska hauek elizara argizariak eramateko sakratutako saskiak eramaten zituzten, baina elizak "barre egiteko" koloretako zintak jartzen zizkieten eta buruan jartzen zuten. Beraz, neskek buruan saski bat koloretako zintekin, aurpegia estalita, eta ohegaineko bat daramatzate.

Zamar handi, zamar txiki, neskek eta alkatea, apaiza, medikua, almiltea



eta basozaina Olaztiko ihoteetako pertsonaiekin batera Zamorako San Vicente de la Cabezako maskaradako El Atenazador eta La Filandorra pertsonaiek osatuko dute segizioa. "Esaten dute oso beldurgarriak direla". Atenazadoreak tenaza handi batzuk eramaten ditu, "X bat egiten dutenak eta horrekin harrapatzen zaitu". Filandorak hautsak botatzen ditu. Uda garaian ospatzen dituzte maskaradak.

Aurten ibilbide berria diseinatu dute eta frontoian bazkaldu eta jantzi ondoren futbito pistatik aterako dira eta elizaraino joanen dira. Garai batean behiak ura edatera gelditzen ziren plazan gazta eta ardoa banatuko dute eta, ondoren, ibilbideak San Sebastian ermitaraino jarraituko du. Han Mari Arroka aterako da eta su bat egingo da. San Migel plazara iritsi aurretik salda banatuko dute. Plazan kintoko zortzikoa dantzatuko dute.

#### OTSAILAREN 25EAN Larunbata,

Hiri inauteriak ospatuko dituzte Olaztin.

#### OTSAILAK 17 Ostirala

##### MARI ARROKA

19:30 Mari Arrokaren ongi etorria, gaztetxeak antolatuta.

21:00 Pintxo pote autogestionatua, gaztetxean.

#### OTSAILAK 18 Larunbata

##### HERRI IHOTEAK

13:00 Bermuta musikaz alaituta.

14:30 Herri bazkaria, frontoian.

Txotxa izanen da.

18:30 Ihoteetako segizioaren hasiera, futbito pistatik.

Zamorako San Vicente de la Cabezako inauterietako Atenazador eta Filandorra pertsonaiekin.

20:30 Kintoko Olaztiko zortzikoa dantzatuko dute, La Cigarra txarangarekin, plazan.

23:00 Nonbait erromeria taldearen kontzertua, gaztetxean.

23:00 DJ Nead (comercial, dance

hits, perreo, urban) Barandi tabernan.

#### OTSAILAK 21 Asteartea

##### HAUR IHOTEAK

17:00-18:30 Merendola eta Dantzatzeko prest festa, ludotekan. Sarrera librea.

#### ZIORDIA



Zomorroa, pezkina eta artzaiak dira Ziordiko ihoteetako hiru pertsonaiek. Zomorroa praka eta atorra txuriarekin, zatekin eta apainduta joaten da, aurpegia estalita duela. Pezkina mahoizko prakak eta zakua jantzen ditu eta zintaz apaindutako txanoa eramaten du. Pertz batean errautsa eramaten du. Azkenik, artzainak garai bateko artzain jantzi arrunta darama, baina aurpegia zikinduta eramaten du eta danborra edo saski bat eramaten du. Ibilbidean zehar goiko iturrian, ermitan eta plazan geldituko dira eta jota eta porrusalda dantzatuko dute. Amaieran, berreskuratu berri duten Ziordiko Zortzikoa dantzatuko dute eta panpina erreko dute.

#### OTSAILAK 18 Larunbata

18:30 Ihote segizioaren topaketa, gimnasio parean.

Ondoren, herrian zehar buelta musikarekin.

20:00 Ziordiko Zortzikoa eta panpina erretzea, plazan.

20:30 Merendua, plazan.

IHOTEAK ZUZENEAN

WWW.GUAIXE.EUS

OTSAILAREN 21EAN 20:50EAN

FESTAROREN ESKUTIK

guaxe fundazioa

TX TXARTEL

www.txartel.net

Konsumitzen dugun energia elektrikoa iturri berrizlagarrietatik dator eta erabiltzen dugun papera baxo irazkintzetatik da

# KINTOAK

## Kintoak hemen dira

**UHARTE ARAKIL** Ostegunetik larunbatera kinto ospakizunak hartuko ditu Uharte Arakilek

Zazpi gazte ubertearrek osatzen dute aurtengo kintada: Moha Khlifi, Maddi Lakuntza Casanova, Ixone Lakuntza Casanova, Uxune Campos Uharte, Aingeru Uharte Navarro, Oihana Jaka Aranguren eta Mikel Arrieta Lizarraga. Gainontzeko kintadek beraien eguna hilaren 4an ospatu zuten, beraz, kinto ospakizunetako protagonista zazpikote gaztea izanen da. Atzo hasi zituzten ospakizunak. Ahalik eta arraroen jantzi beste batzuen arropekin, edo arropa zaharrek, betaurreko handi eta koloretako ileordeekin eta bazkaltzera elkartu ziren. Tripazulua berdindu ondoren, Amurginen dauden baserriak lehenik eta Itxesia auzoko goiko partea bisitatu zituzten, kinto eskean. Langintza horretan trikitilariak izanen dituzte lagun. Afaldu ondoren, “juerga gutxi” egin zuten atzo. Zazpikoteak udalak

utzitako eraikin batean, mojek erabili izan zuten hartan, pasako dituzte kinto ospakizunetako gauak.

Gaur gosaldu ondoren kinto eskeak segida izan du. Goizean enpresetatik eta Zerradoa auzotik pasako dira eskean. Etxe batzuetan dirua eta besteetan kroketak, pastak, bizkotxoak edo bestelakoak dastatzeko eskaintzen dizkiete. Bazkaldu ondoren kinto eskeak segida izanen du arratsaldean. Afaldu ondoren parranda ederra egingen dute kintoek. Larunbatean ihotea ospatuko dute ubertearrek. Eta jendea kalera aterako dela baliatuta, kintoak eskean ariko dira. Bazkaldu ondoren ihote kalejiran parte hartuko dute. Eta gauean kintoek kinto zaharrak eta kinto gazteak afaltzera gonbidatuko dituzte. Parranda ederrarekin despedituko dute ospakizuna.

## Galgarriyek plazara

**ARBIZU** Kintoek asteartea bitartean festa egunak dituzte

Hemezortzi gazte arbizuarrek osatzen dute aurtengo kintada: Irati Nuñez, Naiara Chacon, Anartz Garcia de Albeniz, Inge Martin, Ekain Razkin, Lexuri Petriati, Amaia Petriati, Amaier Garmendia, Iraitz Imaz, Xabier Lakuntza, Oier Arretxe, Hasier Baztarrrika, Izai Lens, Aitor Monroy, Gari Novoselsky, Itxaso Mendinueta, Xabier Ieregi eta Oskia Gorrotxategi. 15 urterekin festetarako atorra egin zuten, kolore granate eta txuria duena eta bizkarrean galgarriyek irakur daitekeena. Festetako atorra kinto ospakizunetaren ez dute kenduko.

Kintoak afaltzera elkartuko dira eta, ondoren, haiek antolatutako parranda-gaua hartuko du Argi Bidea elkarteak. Larunbatean hiri ihoteak ospatzen dira Arbizun eta, beraz, kintoak igandera arte ez dira berriro protagonista izanen. Egun horretan,

10:00ak aldera, baserriarrez jantzita aterako dira kalera eta, trikitilariak lagun dituztela, kinto eskean ariko dira. Eskuzabal diren arbizuarrei pastak edota moskatela eskainiko diete. Lanak eginda, bazkari ederra izanen dute zain. Ondoren, potean ibiliko dira eta ilundu berritan Tolosarako bidea hartuko dute, hango ihote ospakizunetaren parranda egiteko. Astelehenean bazkaltzera elkartuko dira, eta, atzera ere, Tolosarako bidea hartuko dute.

Kintoek egun lanpetua dute asteartean, txatarrak, ihoteak, ospatzen baitira Arbizun. Bazkaldu ondoren haurrentako jolasak eta txokolate jana presatuko dute arratsaldean. Gainera, gaua sartuta dagoela, Attun Handiya eta Amin Tikiya erretzen dituzte arbizuarrek. Irudiak kintoak eginak izanen dira. Eta kintoen egite-



**BAKAIKU** Urteko kintorik ez, baina kinto gazteek eta zaharrek majo pasa zuten ostiraleko parrandan. Baita larunbateko kinto eskean, bazkarian eta ordu txikiak arteko festa giroarekin.



**ITURMENDI** 21 gaztez osatutako kuadrilla izan zen kinto ospakizunetako protagonista. Ostiralean ekin zioten festari. Hala ere, larunbat eguerdirako kalean zeuden kinto eskeari eta parrandari segida emateko prest.

koen zerrenda haiek antolatutako herri afariarekin despedituko da. Aldabide elkartearen izanen da eta hainbat gazte bat egiten dute mahaiaren bueltan. Egin beharrekoak eginda, Arbizuko kintoek Altsasun jarraituko dute beraien ospakizuna.

Kinto arbizuarrek urtean zehar bi egiteko dituzte. Aurrena, Olenztzero eta Mari Domingiren etorreran laguntzea da. Bestea, herriko festen hasieran, garagarriaren 23an, San Joan ermitan Maria Lonbreren Zaldiya dantzatzea da.

## Txatarretatik tutturra janztera

**ETXARRI ARANATZ** Aurreko hiru ostegunetan txatar izandako gazteak kinto izanen dira asteartean

Aurten Etxarri Aranatzek 29 kinto ditu: Osane Orella San Martin, Jonan Ijurra Artieda, Irune Karasatorre Sureda, Alaitz Ulaiar Nabarro, Izaro Lakuntza Ormazabal, Garoa Bergara Nazabal, Maria Imaz Calvo, Oihan Mariñelarena Marañon, Anne Gorritxo Urzelai, June Zubeldia Garzia, Uxune Campos Huarte, Maitane Igoa Lopez de Aguilera,

Joseba Zubieta Igoa, Oinatz Carrero Goñi, Maddi Mendinueta Lazkoz, Amaia Nazabal Martinez de Albeniz, Jon Nazabal Martinez de Albeniz, Aritz Oiarbide Erdozia, Ioan Goikoetxea Agirre, Alain Jaka Goñi, Aitana Igoa Nazabal, Amal El Houndali Dahine, Ainhoa Tello Coyago, Aitor Ijurra Ondarra, Eider Jaka Erdozia, Manex Zufiaurre Begiristain, Achraf



**URDIAIN** Hiru eguneko kinto ospakizun izan zituzten 39 gazte urdindarrek. Txartel salmenta eta kinto eskearekin berdindu zuten aurrekontua. Domeka eguerdian plazan zortzikoa dantzatu zuten.



**ZIORDIA** Txorongo txaranga aldean zutela, kinto ziordiarrek larunbat eguerdia eskean eman zuten. Jasotakoarekin finantzatu zuten asteburu guztia hartu zuen kinto ospakizuna.

## Kintoen atzera kontua

**LAKUNTZA** Astelehenean eta asteartean ospatuko dute haien festa. Ospakizunetan pare bat aldaketa egin dituzte

Hamasei lakuntzar dira aurten kinto: Izaro Jimenez Albeniz, Izaro Lizarraga Ganuza, Naroa Rivas Ganboa, Claudia Alegria Iglesias, Ane Campo Flores, Naia Perez Fernandez, Maialen Ormazabal Garziandia, Naia Satrustegi Baikaikoa, Iker Alegria Gartzandia, Alex Ureña Larreta, Adrian Martinez Los Santos, Aitor Auzmendi Peña, Oier Uzkudun Miranda, Aimar Villegas Ruiz, Aitor Gil Velaz eta Ander Ormazabal Garziandia. Eta hamasei gazte horiekin batera beste horrenbeste kinto gazte izanen dira kinto ospakizuneko protagonistak. Kintoen artean zozketa egin dute ospakizun bi egunetan zeinek eskainiko duen gosaria erabakitzeko. Hark esaten duen tokian gosalduko dute. Aurten gastu hori kintoen bizkar izanen da.

Guztiek astelehenean, 10:00etan, plazan dute hitzordua. Guztiak baserriarrez jantzita egonen dira. Prestatu beharrekoak prestatuko dituzte kinto eskeari ekin aurretik. Aurten, gainera, haien gauzak uzteko txoko bat utzi die-

te. Lehenengo egitekoa lantegietan dirua eskatzea izanen da. Bazkaltzeko etena egin ondoren kinto eskeak segida izanen du arratsaldean. Kinto eskean ari direla trikitilari pare bat izanen dute laguntzaile. Majo afaldu ondoren, Tolosarako bidea hartuko dute. Eta haiekin beti kintoak ere joanen dira. Tolosan, astearte goizean, bigantxak ikusi ondoren, bueltatuko dira herrira. Etxetik pasa eta jantziak aldatu ondoren, Tasubinsaren zentroa eta lantegiak bisitatuko dituzte kintoek, eskean. Bazkaldu ondoren, hala segituko dute. Afaldu ondoren kinto ospakizunak Altsasun despedituko dituzte.

Lakuntzako kintoek herriko bi jai egunetan jendaurrean dantzaten dute Alkate dantza: San Sebastian festetan eta Corpus egunean. Ilbeltzaren 20an dantza berritasuna izan zen, orain arte alkatearen aurrean banakoa bitan dantzaten zutenak gizonezkoak izan dira. Aurten, ordea, emakumezkoa eta gizonezkoa izan dira dantzatu dutenak.



Kinto lakuntzarrek ilbeltzaren 20an plazan dantzatu zuten. **UTZITAKOIA**

Sbai Eddib, Markel Intxaurrea Roldan eta Pello Mikel Mikelez Fernandez. Guztien arteko harrimana sendotu eta bizian behin ospatzen den jai gogoz ospatzeko prest daude denak.

Kintoen egitaraua astelehen gauean hasten da, afaltzera elkartzen direnean. Majo afaldu ondoren, autobusa hartu eta Tolosako inauterietan parranda egitera joanen dira. Han gaupasa egin eta etxera bueltan baserriarrez jantzita aterako dira kalera, buruan ttutturra (koloretako kono itxurako txanoa) dutela. Mendigorriako Berriak

txaranga lagun dutela kinto eskean ariko dira astearte goizean. Lanak despedituta bazkaltzera joanen dira. Eta arratsaldean Kixkimau Pinttoren irudia herrian barna eramanez dute. Ibilbidea plazan bukatuko dute, irudiari su emanez. Eta kontsumitzen den bitartean kintoek, eta nahi duen guztiak, Lantzeko zortzikoa dantzatzeko aukera izanen du.

Kintoak Olentzero eta Mari Domingiren segizioarekin batera agertu ziren jendaurrean, eguberriak bi pertsonaiekin herrian barnako bidea suziekin argitu



Kinto etxarriarren ardura izan zen Olentzerori eta Mari Domingiri bidea erakustea.

baitzieten. 29 gazte etxarriarrak "kintuendako pixkat" eskatzen ariko diren bigarren aldia izanen da astearteko, urte zahar egunean ere herrian barna eskean aritu zirelako kintoak. Orduan trikitilariak lagun zituztela egin zuten kinto eskea. Bestetik, kintoek Dantzakia, Etxarri Aranazko dantza, herriko hiru jai egun jakinetan dantzaten dute: San Kiriko, San Adrian eta Ama Birjinaren egunean. Zeinek noiz dantzatu jakiteko zozketa eginen dute. Azkenik, gazte horien egitekoa ere bada festetako kintoen eguna antolatzea.

# Martilen eta Asierren zenbaki borobilak

**ARETO FUTBOLA** Gaur, ostirala, Osasuna Magna Xotak Industrias Santa Coloma hartuko du Anaitasun. Partida berezia izango da, Asier Llamas atezainak bere 300. partida jokatu baitu. Datorren astean Roberto Martilek 500. partida jokatu du, Cordoban

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN Zenbaki borobilak erakargarriak dira, oso. Eta ospatu beharrekoak. Horrela egingo du Osasuna Magna Xotak. Talde berdeak gaur, ostirala, Industrias Santa Coloma hartuko du Anaitasun, 20:00etan. Eta hain zuzen ere partida horretan Asier Llamas atezainak 300 partida beteko ditu, guztiak Xotarekin. Aste bat beranduago, Cordoban, Roberto Martilek bere 500. partida jokatu du, hauek guztiak ere Xotarekin jokatu. Bi jokalarientzako garaipena lortzea izango zen ospakizunik onena, jokoan dauden bi partidak gakoak baitira talde irurtzundarrarendako.

Asteazkenean efemeridea jasotzen duen kamisetekin agerraldia egin zuten bi jokalaririk irurtzundarrekin, Imanol Arregi entrenatzailean alboan zutela. "Harrotasun handia da. Biak nirekin hasi ziren. Egunerokoan ez gara kontziente zenbaki horiek adierazi nahi dutenarekin. Historia handia dago zenbaki horien atzean, poztasun handiak, tarteka makilkadaren bat ere, baina hobe da gauza pozgarriez gogoratzea" zioen misterrak. "Munduko areto futboligarik onenean ari gara lehian, 2.000 biztanleko herri bateko hiru jokalarirekin (Martil, Asier eta Ion Cerviño)



Roberto Martil, Imanol Arregi eta Asier Llamas, Citroën Torregrasako agerraldian. XOTA

eta misterrarekin. Eta ez gara horren garrantziaz kontziente. Lehen mailako talde askok ez dute euren probintziako jokalaririk. Beraz, gurea handia da. Jendeak flipatzen du" gaineratu zuten Imanolek.

Asier Llamas pozik zegoen. "Nire herriko taldearekin 300 partida jokatu ahal izatea handia da. Talde honetan hazi naiz, eta jokalaria eta pertsona hobe naiz horri esker. Ea ostiralean garaipenarekin ospatzerik dugun, guretako oso garrantzitsua litzatekeelako". Santa Colomak Osa-

una Magnak baino hiru puntu gehiago ditu, eta Lehen Mailari eusteko borrokan, garrantzitsua litzateke garaipena lortzea.

Roberto Martilek halako zifretara heltzea "oso pozgarria" dela nabarmendu zuen. "Zenbaki bereziak dira. Eta oroitzapen asko dira, ia guztiak politak. Urte hauetan guztietan bizi izandakoak harro eta pozik nago. Normaltzat dugu, baina Xota bezalako klub batendako ez da erraza Lehen Mailari eustea eta urteetan lortu duena. Ospatzekoa da, ea emaitzek laguntzen duten".

## Binakakoan, bide beretik jarraitu nahi dute

**PILOTA** Ezkurdi-Martijak play-offeko borrokan jarraitzen dute eta Elordi-Zabaletak irabazten segi nahi dute

Binakako hamahirugarren jardunaldian sakandarrek aurreko jardunaldiko bidean jarraitu nahi dute: garaipenarena.

Elordik eta Zabaletak euren agintaldiarekin jarraitzen dute (11 puntu). Finalerdietarako zu-

zuean sailkatuta daude, Altuna eta Tolosa bezala (9 puntu). Liderrek Larrazabal eta Albisu dituzte aurkari igandean Bilbon, eta puntua lortu nahi dute, "finalerdietara ahalik eta sentsazio onenekin iristeko".

Ezkurdiak eta Martijak (4 puntu) beste final bat dute jokoan asteartean, Tolosan, Peña eta Mariezkurrenaren (5 puntu) kontra. Igandeko Altsasuko garaipen handiaren ondoren (22 eta 6 irabazi zieten Jakari eta Aranguren) bizirik jarraitzen dute, eta nahiz eta play-offetara sailkatzea erraza ez izan, konfiantza alde dute. Bikote oso arriskutsu bilakatu dira. "Asteartean irabaztera aterako gara, txapelketa gehiago estutu eta emozioa emateko" azaldu du Ezkurdiak.


## Mikel Astizen bigarrena jarraian: orain, Lizarra

**DUATLOIA** Tuterakoaren ondoren, Lizarrako Duatloian denboraldiko bigarren garaipena bildu du

Igandean Lizarrako Duatloia jokatu zen Los Llanosen, aldi berean Nafarroako Sprint Distantziako Txapelketa zena. Triatletek 5 km korrika, 22 km bizikletan eta 2,5 km-ko korrikaldia osatu behar izan zuten.

Aurreko astean Tuterako Duatloian Krosa irabaztetik zetorren Mikel Astiz Erro ihabardarra (Hiru Herri) ikusgarri aritu zen atzera ere. Korrika eta bizikleta gainean duen trebezia bikain kudeatuta, aldea hartu eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:02:47), Josu Etxeberriari (Cafes Foronda) 15 segundo aterata (1:03:03). Beraz, Sprint Distantziako Nafarroako txapelduna dugu Astiz.

Gainontzeko sakandarrak ere ongi ibili ziren. Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate 18. sailkatu zen (1:05:32) eta Juan Luis Maiza 35. (1:09:03). Hiruki taldeko Jose Ignacio Mikeo 54.



Mikel Astiz, helmugan. UTZITAKOA

iritsi zen, (1:12:37) eta Sakana Triatloi Taldeko Juan Carlos Gomez 63. (1:14:14).

Emakumezkoetan Saltokiko Sara Modrego izan zen Lizarrako txapelduna (1:13:06), eta erreleboetan Jon Flores eta Julen Lizarribar gailendu ziren (1:06:22).

## ATLETISMOA June Kintana, Nafarroako txapelduna beste behin

Igandean Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatu zen Larrabiden. June Kintana Larraza (Grupompleo) zortzi disko jaurtizaleen artean onena izan zen (52:02 m).

Bestalde, otsailaren 25ean Altsasuko Krosa jokatu da Dantzalekun (4,5 km). Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana webgunean.



Jaurtiketarako prest. ARTXIBOA, UTZITAKOA

## FUTBOLA Inauterietako atsedena, Emakumeen Preferentean izan ezik

Inauteri asteburua denez futbol txapelketa gehienetan ez da jardunaldirik jokatu, Emakumezkoen Preferente mailan izan ezik. Sailkapenean zazpigarren den Altsasuk laugarren den Burladés hartuko du larunbatean, hilak 18, 12:00etan, Dantzalekun.

Gizonezkoen Preferente Mailan Altsasuk hiruna berdindu zuen Beriainen kontra; Etxarri Ara-

natzek 0 eta 2 galdu zuen Ilunberriekin; eta Lagun Arteak bana berdindu zuen Salesianosekin. Sailkapenean Altsasu 10. postuan dago (27 puntu), Etxarri Aranatz 17. (10 puntu) eta Lagun Artea 18. (9 puntu), azken hauek azken bi postuetan.

Erregional mailan Altsasu B-taldeak sailkapenean bigarren den Rotxapea izan zuen aurkari asteazkenean Iruñean, eta altsasuarrek 2 eta 3 irabazi zuten. Altsasuk 12. postuan dago silkapenean (16 puntu).



# Siets Goikoetxeak eta Ane Berastegik domina bana lortu zuten Madrilen

**PISTA TXIRRINDULARITZA** Liga Nazionaleko Madrigo pista jardunaldian hiru sakandar lehiatu ziren: Siets Goikoetxea, Ane Berastegi eta Ekaitz Jimenez, eta bi domina ekarri zituzten Sakanara. Asteburuan Valentzian lehiatuko da selekzioa



Kadeteen eta juniorren Nafarroako pista selekzioa, Galapagarren. FEDERAZIOA

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Galapagarrek Pista Txirrindularitza Liga Nazionaleko Madrigo jardunaldia hartu zuen asteburuan. Nafarroako pista selekzio-ko hautatzaile Sergio Aliagak

aukeratutako taldean hiru sakandar zeuden: Siets Goikoetxea Garde urdiaindarrak (Ecológicos Navarra Beratxa), Ane Berastegi Jaka arbizuarrak (Ecológicos Navarra Beratxa) eta Ekaitz Ji-

menez olaztiarra (Quesos Albeniz-Burunda).

Nafarroako selekzioak lan bikaina egin zuen eta lau domina ekarri zituen. Emakumezkoen jubenilen mailan Raquel Erdo-

ziainek zilarrezko domina lortu zuen, eta gizonezkoen jubeniletan Sandro Abadiak ere zilarrezko eskuratu zuen. Kadeteen mailan Siets Goikoetxeak zilarrezko domina kolokatu zuen eta Ane

Berastegik brontzezkoa, Valentziako Leyre Almenaren atzetik. Asteburuan Liga Nazionaleko hurrengo proba jokatu da, Valentzian, eta Nafarroako selekzioa dagoeneko bertan dago.

## "Aurten ikusi da gure maila zein den, eta pozik gaude"

### SIETS GOIKOETXEA GARDE TXIRRINDULARIA

**Pista txirrindularitza gustuko duzula agerikoa da. Gainera, emaitza bikainak lortu dituzue Madrilen. Kadeteetan zilarrezko domina lortu duzu eta Ane Berastegi arbizuarrak brontzezkoa. Zorionak!**

Eskerrik asko. Infaniletan hasi ginen pistan. Kadeteen lehen urtea Zaaf Cycling Team de Navarra taldean egin nuen, baina aurten talde berria hasi naiz, Tafallako Ecológicos Navarra Beratxan. Pistan gehiago barneratzen jarraitu dugu eta aurten gure maila zein den ikusi da. Pozik gaude.

#### Zer moduz Beratxa talde berria?

Oso gustura gabiltza. Nirekin batera Ane Berastegi arbizuarrak eta Ane Beltran de Heredia altsasuarra daude taldean. Gainontzeko sakandarrei dagokienez, June Etxeberria urdiaindarrak eta Bakarne Arregi lakuntzarra Lacturale Ermitagaña taldean daude eta Leire Urtsunek aurten txirrindularitza utzi du.

#### Madrilen pistako zein probatan parte hartu zenuen?

Pista txirrindularitza modalitate ezberdinak ditu, eta gu kadete mailan jokatu ziren modalitate guztietan lehiatu ginen: scratch, kanporaketa, 200 metroko proba eta puntuazioa.

#### Zein dira proba bakoitzaren berezitasunak?

Scratch lasterketa normal bat bezalakoa da. Buelta kopuru jakin bat egin behar da, eta helmugan lehena iristen denak irabazten du. Kanporaketa proban hainbat itzuli eman behar dira, eta tarteko esprint

bakoitzean helmuga lerroa igarotzen azkena kanporatua izaten da. Hiru azkenek jokatu dute txapelketa. 200 metroko proban banaka ateratzen gara. Hiru itzuli eman behar dira, bi goiko peraltetik, eta kanpaiak jotzen duenean azkeneko itzulia azpiko peraltetik egin behar da, ahal duzun azkarren. Lehendabiziko sei onenek puntuatzen dute eta lehenengo lauek beraien artean jokatu dituzte postuak, lehia batzuk jokatu. Puntuazioa azkeneko proba da, eta nire ustez gogorra. Epaimahaiak erabakitako itzuli jakin batzuetan (bost itzulietan edo hamar itzulietan behin) lehenengo sei-zazpiek puntuatzen dute. Bueltak eman eta eman aritu beharra dago, eta kanpaiak jotzen duenean topera joan, puntuatzeko.

#### Lau proba hauetan egindakoa kontuan hartuta lortu zenuen zilarrezko domina?

Bai. Hobekien 200 metrotako proban ibili nintzen. Abiadura probatan hobeki moldatzen naiz.

#### Maila handia al zegoen?

Beldur pixka batekin joan nintzen. Maila handia zegoen, baina probak pasa ahala, ikusi nuen ongi aritzeko gai nintzela. Hortik aurrera, eta konfiantza alde, geroz eta postu hobekien lortzen hasi nintzen. Zegoen mailarekin baino, nik emandako mailarekin gelditu nintzen harrituta. Uste baino askoz ere hobeki aritu nintzen.

#### Liga Nazionaleko hurrengo proba Valentzian jokatu da, asteburuan.

Bai, Valentziarako prestatzen ari gara, ea nola ateratzen den. Txapelketa bakoitzak



Siets Goikoetxea eta Ane Berastegi, Valentziako Leyre Almena txapeldunaren alboan. FEDERAZIOA

bere sariak banatzen ditu, baina gero saillkapen orokorra edo rankinga dago, proba ezberdinetan banatzen diren puntuak kontuan hartuta egiten dena. Lauzprobost proba dira. Ilbeltzaren 28an Tafallan jokatu zena (Ane bosgarren izan zen eta ni zazpigarren), Galapagarrekoa, Valentziakoa eta besteren bat.

#### Ane Berastegik brontzezko domina lortu zuen. Nola ikusi zenuen?

Oso ongi. Guk argi dugu proba batean norbaitek laguntza behar duela, elkarri lagunduko diogula. Ez dugu inolako lehiakortasunik zentzu horretan.

#### Noiz bukatuko da pista denboraldia?

Apirilean, Aste Santu inguruan jokatu diren Espainiako Pista Txapelketetan. Ordurako errepideko denboraldia hasita izango dugu, martxoaren 5ean Nojan lasterketa baitugu. Bi modalitateak elkartuko zaizkigu. Errepiderako ere gogotsu gaude.

#### Tafallakoa da taldea, baina oinarritzko entrenamenduak hemen egingo dituzue.

Bai. Normalean gure taldeko hirurak geratzen gara, baina batzuetan Junerekin eta Bakarnerekin ere atera izan gara. Tafallara astean behin edo bitan goaz, talde entrenamendua egitera.



Bandres Karolo mendi eski proba gogorra da. Eskiatzaileek tarteka kranpoiekin gaintitu behar dute bidea. BANDRES KAROLO

# Bandres Karolo Mendi Eski Memorialaren bihotz irurtzundarra

**MENDI ESKIA** Izaban jokaturako Bandres Karolo Memorialeko antolakuntzan zortzikote irurtzundar batek parte hartzen du, Ipe Lizarragak tartean. Orain arteko probarik ederrena primeran atera zelako "pozik eta eskertuta" daude

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN Hiru urteren ondoren, Izabak Bandres Karolo Mendi Eski Memoriala hartu zuen aurreko asteburuan. Eguraldia eta elurraren baldintzak ezin hobekak zirela, larunbatean lineako mendi eski ibilbide zoragarria osatu zuten eskiatzaileek, eta igandean Ardibidepekua gailurrera kronoigoera. Jon Ander Aranburu eta Nahia Quincoces izan ziren txapeldun handiak. Mendi eskiatzaileen festa eder honen antolakuntzan irurtzundar talde batek hartzen du parte hasieratik, eta tartean dago Ipe Lizarraga Garziandia. Bandres Karolo Mendi Eski Memorialaren logistikaz arduratzen da.

## Hastapenak

Bandres Karolo Memoriala Euskal Herrian antolatzen den mendi eski proba ezagunetakoa da.

"Antxon Bandresen eta Carlos Imirizaldu "Karolo"-ren alde egiten den mendi eski lasterketa da, eta alde horretatik karga emozionala du. Gure proba berezia da, bitxia eta polita" dio Ipe Lizarraga irurtzundarrak. Lizarraga hasieratik dago lasterketaren antolakuntzan. "Antxon Bandres tolosarra, Euskadiko Mendi Federazioko presidentea izandakoa, ez nuen ezagutu, baina Karolo laguna nuen. Bera izan zen memorial honen sorreran sartu gintuena. Antxonek eta Karolok Euskal Herrian mendiko eski probaren

**"KAROLO LAGUNA GENUEN. BERAK SARTU GINTUEN HISTORIA HONETAN" IPE LIZARRAGA**

bat antolatzearen beharra ikusten zuten. 2011 urtean etxeko istripu batean zendu zen Antxon; Karolok egitasmoaren lekukoa hartu, eta berarekin batera hasi ginen eski lasterketa antolatzen, Antxon Bandres Memoriala izena hartu zuena. 2012an antolatu genuen lehenengoz: San Martin eski estazioaren eremuan kronoigoera bat egin genuen" oroitzen du Ipe Lizarragak.

Hurrengo urtean, 2013an, Karolo mendizale noindarrak bizia galdu zuen Aitzondo harraitzean, Uharteko Arakilen izandako mendi istripuan. "Karolo ikastaro batean ezagutu genuen. Irurtzungo lagun kuadrilla bat mendi eskian hasi ginen. Aurretik pista eskian eta iraupen eskian ibiliak ginen, baina mendi eskiak erakartzen gintuen. Lagun baten anaiarekin hasi ginen, baina Nafarroako Mendi

Federazioaren ikastaro bat egin genuen eta han ezagutu genuen Karolo. Harreman polita egin genuen eta sarritan joaten ginen elkarrekin mendira, bizikletan ibiltzera, eskiatzera... Bera zendu ondoren mendi eski proba antolatzen jarraitzea erabaki genuen eta ordutik aurrera Bandres Karolo Memoriala izena hartu zuen".

## Lagun artean

Noain Mendi Klubak eta Tolosako Mendi Klubak antolatzen dute Memoriala. "Hasi ginenean, klub baten babesa behar zen proba antolatu ahal izateko. Noaingo Mendi Taldeak baiezkua eman zuen, Karolo bertakoa baitzen. Ordutik gure kuadrilla ia gehiena Noaingo klubarekin dago federatuta. Proba Iruñea, Irurtzun, Tolosa eta Donostiako lagun talde batek antolatzen dugu. Bestalde, federazioetatik galdegin ziguten ea gure proba baliagarria izan zitekeen Nafarroako Mendiko Eski Txapelketa eta Euskadiko Mendiko Kopako proba puntuagarria izateko, eta baiezkua eman genuen" dio Lizarragak. Ez du inoiz Memorialean parte hartu. "Beste lasterketa batzuetan aritzen naiz, Altitoy, Kantabriako Andres Regil eta halakoetan, baina gurean ez, lan egitea dagokigulako".

Aurten Memorialeko zortzigarren edizioa jokatu zen. Azken hiru urteetan ezin izan zen egin, "lehen bi urteak ditxosozko pandemiarengatik eta joan zen urtean elur faltagatik. Nahiko urduri geunden. Gainera, ez zuen elurrik egiten. Baina, azkenean, sekulako elurtea bota zuen eta proba baldintza ikusgarrietan egin zen. Bai elurra-erengatik, elur asko eta ona zegoelako, eta baita eguraldiagatik ere. Egun eguzkitsuak izateaz gain, ez zuen haizerik egin. Hiru urteren ondoren, halako baldintzak egotea merezi genuen" nabarmendu du.

Bandres Karolok harrera bikaina du. "Izena ematea zabaldu eta astebetean bete ziren 220 tokiak. Sekulako indarra ematen dizu. Gurekin oroitzen dira".

**"PROBA BALDINTZA IKUSGARRIETAN JOKATU DA. HIRU URTE PASA, MEREZI GENUEN" IPE LIZARRAGA**

## Trazak markatzea

Halako proba baten atzean lan izugarria dago. Guztira 60 pertsona inguru aritzen dira antolakuntzan, eta horietatik zazpi-zortzi irurtzundarrak dira. Soilik ibilbide guztia trazatzeak eta markatzeak izugarriko lana du. "Mendi lasterketa bat prestatzerakoan pistak edo xendak erabiltzen dira, baina elurretan ezin da. Proba jokatu baino lehen ibilbide guztiko trazak ongi markatu behar ditugu, eskiatzen. Aurten lineako proban 20 km ziren, eta kronoigoeran 5 km, pentsa. Gainera, bi traza markatzen dira, eskiatzaileek beste bat aurreratu nahi badute traza bikoitza izan dezaten. Horrekin batera ibilbide guztia banderaxoekin markatu behar da. Igoerarako berdeak, eta jaitsierarako gorriak. Aurten bezperan guztia markatu genuen, baina gerta izan zaigu elurra ari zuelako edo haizea zegoelako bezperan gauez ibili behar izatea eta proba hasi baino ordu eta erdi inguru markatze lanak bukatzea, horrek dakarren estresarekin". Zorionez, aurten ez dute arazo hori izan. Ibilbidean traza egokiak egiten saiatzen dira, "ez oso tente, eskiatzaileak eroso joateko. Eskertzen digute, traza on batetik zoazenean gutxiago nekatzen zarelako eta gehiago disfrutatzen duzulako".

Kontrol guneetan ere jendea egon behar da. "Bost igoera eta beste horrenbeste jaitsiera zeuden, eta bakoitzean kontrol gune bat egon behar da. Eskiatzaileek igotzeko eskiei foka larruak jartzen dizkiete zoruari, eta jaisterakoan kentzen dizkiete. Eta hori kontrol guneetan egiten da. Aurten guztira 12 kontrol gune zeuden". Eta, jakina, bestelakoak ere antolatu behar dira. "Logistikaz arduratzen naiz ni. Irteera eta helmugako arkua eta banderolak eman, kronometratzeko gailuak, musika, megafonia, auzatea eta hornidura guztia... Guztia aurreikusi, prestatu eta lotu behar da, furgonetetan kargatu, muntatu eta guztia bildu".

## Linea eta kronoigoera

Larunbatean, otsailak 11, lineako proba jokatu zen. Belaguako Angel Oloron aterpea irteera eta helmuga zela, ibilbide gogorra bezain ederra osatu behar izan zuten eskiatzaileek. Besteak beste, Lakora ondoko Kortaplana eta Binbalet gailurrak igo

zituzten, eta Kartxela eta Binbalet tontorren iparretik Zuberoako mendietan sartu ziren. Azken igoera, "Heriotzaren zeharkaldia" izenez bataiatutakoa, bereziki gogorra izan zen. Bost igoera eta bost jaitziera izan ziren, 20 km eta 2.000 m desnibel guztira. Igoera horietako bi eremu edo korridore oinez osatu behar izan zituzten, kranpoiak jantzita. "Azken momentura arte ez dugu ibilbidea zein den esaten. Sekretuan mantentzen dugu, ez baitakigu nola egongo diren elur baldintzak. Ibilbidea prestatzerakoan beti saiatzen gara ibilbide arruntak edo ezagunak direnak ez izatea, eskiatzaileek toki berriak ezagutu ditzaten eta proba berritzailea izan dadin. Arreta berezia jartzen diogu horri. Aurtengo ibilbideko zati batzuetan aurretik ere barnerratu izan ginen, baina igoerak eta jaitzierak toki ezberdinetatik egin genituen, esaterako Iparraldera jaisten zirenak. Horiek berriak ziren" aipatu du. A ibilbide luzeagoaz gain, B ibilbidea zegoen ere, laburragoa (11 km, 1.100 m desnibela), "mendi eskian hasi berri direnendako edo ibilbide ez horren gogorra egin nahi dutenendako. Gurera lehiatzera datorren jendea dator, baina baita besterik gabe ibilbidea osatu nahi duen jendea, disfrutatzen datorrena. Kranpoiekin joan behar den eremu batzuetan ere sokak jartzen dizkiegu. Azkenean ibilbide berezia baina modu seguruan egiteko aukera ematen du gure lasterketak, eta eskiatzaileek balioa ematen diote" zehaztu du Lizarragak.

Igandean, otsailak 12, Izaban hasi eta Ardibidepikua gailurre-ra zioan kronoigoera jokatu zen, km bertikal bat bezalakoa, baina eskiekin, 5 km-ko distantzia eta 700 metroko desnibela zuena.

#### Urrestarazu eta Rubio

Memorialerako eskiatzaileek bi probetan egindako denbora batzen da. Nahia Quincoces mendexarra eta Jon Ander Aranburu zumaragarra izan dira Memorialeko aurtengo txapeldun handiak, sekulako erakustaldia emanda. Quincoces bi probatan gailendu zen (linean 2:37:43 ordu, eta kronoigoeran 44:36 minutu), eta Aranburu kronoigoeran (38:42 minutu). Lineakoan bigarren izan zen (2:20:23 ordu), Noel Burgos madrildarraren atzetik (2:10:38). Kronoigoera, aldi berean,

Euskadiko Kronoigoera Txapelketa izan zen eta Quincoces eta Aranburu izan ziren txapeldunak. "Telemarkeko eski zahar batzuk ditugu: batean emakume txapeldunen izenak jartzen ditugu eta bestean gizonena. Aurten Aranbururen izena lehenengoz jarri genuen, Quincocesek aurretik Memoriala irabazia zuelako".

Larunbateko lineako proba Nafarroako Mendiko Eski Txapelketa izan zen aldi berean. Senior mailan Josema Urrestarazu altsasuarra hirugarren sailkatu zen, eta senior betaranoen mailan Nafarroako txapelduna izan zen (2:41:12), Patxi Rubio uharte arakildarraren aurretik (2:54:55). "Josemak, urtero bezala, gure proban parte hartu zuen. Baita Patxi Rubiok ere. Aurreko edizioen batean ere Juanjo Goikoetxea aritu izan da, egun Nafarroako selekzioko hautatzailea dena. Baina sakan-darrak antolakuntzan aritzen gara lehiatzen baino" aipatu du Lizarragak.

#### Izabako festa

Lasterketa jarraitzen jende dexente hurbildu zen. "Erraketekin ibiltzen edo eskiatzen ez bada-kizu ez da hain erraza, baina hala ere helmugan kuadrilla polita zegoen. Eta jakinda gero Izaban zer nolako giroa dagoen, jendea hurbiltzen da". Izan ere, Memoriala lasterketa bat baino gehiago da, "mendi eskiko festa da". Larunbat arratsaldean Eñaut Izagirre geologo eta glaziologoak *Into the ice* proiektzioa eskaini zuen Izabako zineman, Darwin mendikateko bidaia erakusten duena. Eta Jumere aita-seekek Bandres Karolo Saria jaso zuten. "Pirinioetako ia eski proba guztietan ibiltzen da Wilfrid semea, baita gurean ere, eta aita hari laguntzen egoten da beti. Gainera, bere garaian iraupen eskiko olinpikoa izan zen. Omenaldia merezi zuten, eta eskertuta zeuden". Ekitaldian ere antolatzaile taldean izandako bi kide gogoan izan zituzten, Oskar Lizarraga eta Joxe Mari Arbelaitz. Segidan, bertso poteoan ibili ziren mendi eskiatzaileak diren Imanol Uri

**"URRESTARAZU,  
URTERO BEZALA,  
GUREAN ARITU ZEN.  
BAITA RUBIO ERE"  
IPE LIZARRAGA**



Josema Urrestarazu San Roman altsasuarra kronoigoerako helmugan. J.M GALPARSORO



Ipe Lizarraga Garziandia Belaguako auzatea prestatzen. BANDRES KAROLO



Larunbateko lineako probako irteera, Belaguako aterpean. GEMMA



Aranburu eta Quincoces, euren izena idatzita duten eskiekin. BANDRES KAROLO

eta Aitor Sarriegi bertsolariekin. "Taberna guztiak beteta zeuden. Gure proba mendian jokatzen da, baina herria asko girotzen du". Izabarrek gustura hartzen dute Memoriala. "Zinea, frontoia, mahaiak eta bestelakoak uzten dizkigute, igandean bertan egiten baitugu miga jatea. Izabako Udolari, ADI IKE eta Kurruskla elkarteei eta herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu, bestela ezingo genuke hau guztia antolatu" dio, bihotzez, Lizarragak.

Pozik egoteko arrazoi asko dituzte antolatzaileek, eskiatzaileen partetik hitz ederrak baino ez baitituzte jaso, lasterketaren edertasuna eta antolakuntzaren lan ona gorai patzen dutenak. "Ibilbidea ederra zen, jendeak igoeraz disfrutatu zuen eta jaitzieren ere lore asko jaso ditugu. Eskertzen da, atzetik lan handia dagoelako, proba baino hilabete batzuk lehenago hasten den lana" aitortzen du.

#### Datorrenerako gonbidapena

Lehertuta baino pozik bukatu dute boluntarioek, "nekatuta, halako proba bat antolatzea nahiko estresantea ere badelako, baina kontentu, guztia ongi joan delako. Edizio honen arrakasta errepikatzea kostako zaigu, baldintzak paregabeak izan direlako. Aurten boluntario berriak hurbildu zaizkigu, eta ikusita zein ongi atera den jada hurrengo urtekoan pentsatzen gaude. Ideia pila ditugu, baina baldintza klimatikoek lagundu beharko dute" dio. Sakanarrekin atekak zabalik dituzte, "bai antolaketan boluntario izateko edo proban parte hartzeko. Sakanan iraupen eskian dabilen jendea dago, baina mendi eskian hastea gehiago kostatzen da. Hala ere, badakit zaletasuna dagoela".

Hor nonbait, Bandres eta Karolo pozik egongo dira, euren ametsak bizirik jarraitzen duelako. "Hala espero dugu. Sarritan gure artean aipatzen dugu kabroi hauek oztopo pila bat jarri dizkigutela, baina tarteka hauspoa hartzeko beta ere ematen digutela (kar, kar...)". Gustuko tokian, aldarrik ez.

**"LORE ASKO JASO  
DITUGU. ESKERTZEN  
DA, ATZEAN LAN  
HANDIA DAGOELAKO"  
IPE LIZARRAGA**

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.:

948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 17

## ALTSASU Odol ematea.

Odola emateko autobusa izanen da. Aurretik izena eman behar da. **09:30etik 13:15era, osasun etxearen aurrean.**

## IHABAR Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rolak, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Arakilgo gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eiherra kooperatibak bideratuta.

**17:00etatik 20:00etara, herriko etxean.**

## ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexologia aholkularitza eta Xbox.

**17:30etik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.**

## ETXARRI ARANATZ Mobilizazioa.

Asier etxera. Gradu erregresiorik ez! Etxerako bidean oztoporik ez prentsaurreko jendetsua.

**20:00etan, plazan.**

## ALTSASU Kontzertuak.

Teenage Bottlerocket AEBtako Wyoming estatuko punk rock taldea eta Monte del Oso talde gonbidatuaren kontzertua.

**22:30ean, gaztetxean.**

## BAKAIKU Mus txapelketa.

Euskal Herriko Mus txapelketaren kanporaketa.

**22:00etan, elkartean.**

## LARUNBATA 18

## ALTSASU Antzerkia.

El Brujo. El alma de Valle Inclán antzeulanaren emanaldia, gaztelaniaz. **19:30ean, lortia kultur gunean.**

## IGANDEA 19

## ALTSASU Hitzaldia.

Nafarroako 0-3ko Plataformaren *ibillbidea eta borroka aztergai*, Eider Garde Mazkieran Nafarroako 0-3 Plataformako kidearen hitzaldia. Itaiak antolatuta.

**17:00etan, Gure Etxearen lehenengo solairuan.**

## ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

Elkano. *Lehen mundu bira* filmaren emanaldia, euskarazko ikus-entzunezkoak bultzatzeko UEMAren egitasmoaren barruan.

**17:30ean, kultur etxean.**

## ASTELEHENA 20

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

## OSTEGUNA 23

## ARBIZU Ikastaroa.

Indusketa lana mendiko sagarrendoan ikastaroaren alde praktikoa.

**16:00etatik 18:00etara, Agotzainaren biribilgunearan aurrean.**

## UHARTE ARAKIL Odol ematea.

Odola emateko aukera izanen da. Aurretik izena eman behar da.

**16:45etik 21:00etara, Aralar Mendi elkartean.**

## OSTIRALA 24

## UHARTE ARAKIL Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rolak, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko UharTE Arakilgo, Irañetako eta Arruazuko gazteendako. Sakanako

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**Una herencia de muerte** gaurkotatuzko filmaren emanaldia

Ostirala 17 19:00  
Igandea 19 19:30

**Living** gaurkotatuzko filmaren emanaldia

Osteguna 23 19:00  
Ostirala 24 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

**Goliath** zineforum filmaren emanaldia

Igandea 19 19:30

**Decision to leave** zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 23 19:00

Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eiherra kooperatibak bideratuta.

**17:00etatik 20:00etara, udaletxean.**

## ALTSASU Batzarra.


Denon bizitzak erdigunera M8 prestatzeko Sakanako mugimendu feministaren asanblada irekia.

**18:00etan, Gure Etxea eraikinean.**

## ALTSASU Kontzentrazioa.

Osasun publiko eta kalitatezkoak guztiontzat: *Altsasun pediatriak orain!* kontzentrazioa.

**18:00etan, udaletxearen aurrean.**



**ALTSASU Altsasuko inauterietako erakusketa.**  
**Otsailaren 26ra arte. Iortia kultur gunearan erakusketa aretoan.**

**IRURTZUN** Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu Ezan Hirea, aurkitu Gaitunk Geurea* pintura erakusketa.

**Martxoaren 12ra arte. Pikuxar tabernan.**



## IRAGARKI SAILKATUAK

## NEGOZIOAK

## ALOKAGAI

**Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

## LEHIAKETAK

**Olatziko Udak VII. Hiri Ihoteko Mozorro lehiaketa antolatuta du:** Otsailaren 25ean izanen da eta 14 urtetik gorakoek parte har dezakete. Izena egunean bertan eman daiteke futboleko pistan egongo den zinegotziarekin hitz eginda eta bozketa orria jaso behar da, bertan besteen balorazioa egiteko. Sariak 150 euro, 100 euro eta 50 eurokoak izango dira. Egun horretako atsaldako 20:00etan, dantzaldian, eman go da saridunen berri.

**Gozamenez sexualitateari buruzko film laburren lehiaketa:** *Sexu eta Harremani buruzko istorioa* leloa duen lehiaketan sexualitatearen ikuspegi positiboa ematen duten ikus-entzunezkoak aurkeztu daitezke, banaka edo taldeka, 12 eta 13 urte arteko sakandarrek parte hartu dezakete, horretarako Altsasuko Intxostiapunta gazte txokoa izena eman behar da martxo-

aren 5a baino lehen. 100 eta 200 euroko sari ezberdinak daude jokoan. Bi sari epaimahaiak emanen ditu eta bestea gazte altsasuarrek herri bozketa bidez aukeratuko dute. Aurreko edizioetako lanak [www.gozamenez.com](http://www.gozamenez.com) web orrian ikus daitezke.

## IKASTAROAK

**Emakume langabeek gaitasun digitalak eskuratzeko doako ikastaroa Altsasun:** Otsailaren 27tik martxoaren 10era, goizeko 9:15tik 13:15ra. Intxostiapunta gazte-txokoa. Informazioa eta izen ematea 628 328 593 ifnoan edo [miraola@altsasu.net](mailto:miraola@altsasu.net) helbide elektronikora idatziz.

**Adinduendako doako ikastaroa gaitasun digitalak eskuratzeko Altsasun:** Informazioaren eta komunikazio teknologiak modu praktikoa erabiltzen ikasteko. Otsailaren 27tik martxoaren 10era, aukeratzeko bi txandatan, 15:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 19:00etara, Intxostiapunta gazte txokoa. Izena emateko 628 328 593 telefonora deitu edo [miraola@altsasu.net](mailto:miraola@altsasu.net) emailera idatzi.

## OHARRAK

**Altsasuko kontsumitzaileen udal bulegoa:** Nafarroako Kontsumitzaileen Iratxe Elkarteak atzintzen du aurretik 012 telefonon hitzordua hartuta.

Doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen dute. Otsailaren 28an etorriko dira eta martxoan 7an, 14an, 21ean eta 28an.

**Mank-ek ur kontagailuen irakurketa egingo du:** Sakanako Mankomunitateak jakinarazi duenez, gaurtik aurrera ur kontagailuen irakurketa egiten du Irurtzun, Lakuntzan, Arbuzun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian. Ibarreko erakundetik jakinarazi dutenez, irakurketa egiterakoan langileek etxeren batean bakarren bat opatzen ez badute oharra utziko diote. Etxejabeak hartan bere ur kontsumoaren irakurketa idatzi eta Mank-i jakinarazi behar dio. Beltze dauden komaren aurreko zenbakiak hartu behar dira. Horretarako hiru bide daude: 948 464 867 telefonora hots eginez, 663 399 732 telefonora Whatsapp mezua bidaliz edo [ura@sakana-mank.eus](mailto:ura@sakana-mank.eus) posta elektronikoko helbidera mezua bidaliz.

**Euskara hutsezko Udalekue-tara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak:** Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian eskura dezakezue.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**Erviti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioerviti.es](mailto:info@aluminioerviti.es)

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



**Jabier Aiestaran Erdozia**

ALKATE,  
eredu bat izan zara  
zure ondoan egon  
garenontzat.  
Eskerrik asko

**Bakaikuko zure lagunak**

ESKELA



**Jabier Aiestaran Erdozia**

Desobedientziaren bidean  
zurekin bizitakoak  
ahaztezinak dira,  
intsumisoon "alkate"

**GAS-SAT**

ESKELA



**Maria Luisa Nuñez Fernandez**



(Otsailaren 9an hil zen 90 urterekin)

Izar berri bat dugu zeruan,  
beti maiteko zaitugu, beti izango gaituzu

Haren aldeko meza larunbatean, otsailak 18,  
17:00etan, Altsasuko elizan.

**Familia**

ESKELA



**Miguel Maiz Navarro**



'Txarrantxas'

Iruñean hil zen, 2023ko otsailaren 16an, 94 urte zituela.

Haritz zaharrak eman digu sekulako itzala.  
Errotu dizkigu zainak, tinko.  
Eta haren ezkurretatik ernatu dira  
beste bost haritz sendo eta eder.  
Gurea da zure iragana, zurea gure geroa.  
Muxubek betiko, Aittuna.

Haren aldeko meza gaur, ostirala, otsailak 17,  
16:30ean, Etxarri Aranazko Santa Maria Elizan

**Etxekoak**

ESKELA



**Miguel Maiz Navarro**



Eskerrik asko Andra Mari Ikastolari  
emandako guztiagatik.

"Zu sortu zinen enbor beretik  
sortuko dira besteak,  
burruka hontan iraungo duten  
zuhaitz-ardaska gazteak"

**Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak**

ESKELA



**Miguel Maiz Navarro**

Eneka Maiz Ulaiarren Guaixeko patronoaren aita

Laztanik samurrenak,  
elkarren babesean igarotakoak



ESKELA

**Bitoriano Lizarraga Larraza**



Agur aitona, aitona agur  
ohore eta bi muxu  
Gure artetik joan zara, baina  
gurekin jarraitzen duzu.

**Etxekoak**  
Etxarri Aranatz - Ataun

ESKELA



**Bitoriano Lizarraga Larraza**

Dorraon sortua,  
gizon gozoa eta  
baketsua.  
Mendizale geldi ezina  
zizatan gozaten  
zekiena.  
Betirako gure bihotzean, aitona.

**Unai, Iruñe eta Adur**  
Etxarri Aranatz eta Ataun



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN

**Izarra, Nafarroako tanatorioa**  
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

**ALTSASU**      **ETXARRI-ARANATZ**  
Santa Cruz, 6      Nagusia, 2

**948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com**

## JAIOTZAK

- **Ilyas Azizi**, otsailaren 4an Olaztin
- **Mohamed Fadel Sarry**, otsailaren 9an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.  
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## HERIOTZAK

- **Benigno Miranda Razkin**, otsailaren 9an Lakuntzan
- **Jabier Aiestaran Erdozia**, otsailaren 12an Bakaikun
- **Lucio Urtaşun Zubiria urdiaindarra**, otsailaren 14an Etxarri Aranatz

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

# Igande arratsaldeko bertsolaritza jaialdia

Aurreko igandean, otsailaren 12an, sei bertsolari igo ziren Etxarri Aranazko kultur etxeko oholtzara. Besteak beste, horrelako bertso saio gehiago antolatzea aldarrikatu zuten. Igandean izateak ere askorako eman zuen

ETXARRI ARANATZ

Sofa, manta eta filma beharrean, aurreko igandean, otsailaren 12an, kultur etxeko eta bertsoen berotasuna izan zuten Etxarri Aranazko bertso saiora gerturatu zirenek. Asteko azken eguna ez omen da bertso saioak egiteko oso egun ohikoa, baina horretan aritu ziren Xabat Illarregi, Maialen Akizu, Julio Soto, Oihane Bartra, Alaia Martin eta herriko Eneko Lazkoz bertsolariak. Joseba Beltza etxarriarra izan zen gai jartzaila. Eta gaien artean, hain zuzen, igandean bertsoan ibiltzearena izan zen, arraroa omen delako.



Etxarriko bertso saioa.

Igandean izan edo asteke edozein egunetan izan, bertso saio eta plaza gehiago behar direla aldarrikatu zuten bertsolariek. Etxarri Aranatzen egin bezala Sakanako herrietan errepikatzea eta bertsoan aitzeko plazak ematea eskatu zuten oholtzatik.

## Etokizuna

Bertso jaialdian ere bertsolariak tarotistak edo azti iragarleak bihurtu ziren. Tarot kartak bota zituzten eta bertsoen bidez haien artean karta irakurri edo interpretatu eta etorkizuna aurreikusi behar izan zuten. Beteiko al da?



BAZTERRETIK

HODEI GIL ALEGRE

## Kameleoien artean kameleoi

Gaur egun musikaren panorama bestelakoa da duela urte batzuetan zegoenarekin alderatuta. Urteen etorrerarekin musika batzuen iraungitze datak zakarrontzira botatzera behartu dietelarik. Rock Radical Vasco izenez deitzen zuten mugimendu horren akabera heldu zen, 2.000 garaiko punk amerikarra ere iraungi zen, eta azken urteotan musika komertziala haustearren alde talde anitz atera dira. Musika alternatibo, elektronikoa eta "zikinak" beraien esentzia markatzen duela esan dezakegularik. Agian indie rockaren ziztadak jotako musika da, antikomertzialaren komertzializazioa gertatzen delarik. Eta hemen sartzen dira jokoan kameleoiak.

Desberdinak izateko gura handia dago, besteengandik desberdintzeko beharra.



Esandako musika alternatiboa desberdintzearen, txurian beltz izatearen. Baina ez dira bakarrak oihan honetan. Desberdinak izan nahi duten talde asko sortu dira. Talde asko bakar izatearen nahian, eta hori kontraesana da. Beraz, bata bestearengandik desberdindu nahia izaten dute, kameleoiak sabana berdean arrosa bilakatzeko. Baina denek kameleoiarena egiten dute, sabanaren berdetasunean hegemonia arrosak hartzen, bata bestearen kolorea hartu.

Denek, azken finean, kolore berdina hartzen, eta hauskor izan behar zuen hori, mainstream/popularra ere bilakatzen. Beraz, kameleoien munduan nor da desberdina?

Era berean, azpimarratu nahiko nuke nire gura ez dela "kameleoi" musika deritzodanei meriturik kentzea, ni batzuen jarraitzailea naiz, alajaina, baina kameleoi desberdintasunaren berdintasunaren paradoxa gertatzen ari dela iruditzen zait azken garai hauetan.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Nork ez du Mowgli oihanean animaliekin hezitako haurraren istorioa ezagutzen? Disney konpainiak, herri ipuin askorekin egin bezala, *Oihaneko liburua* hartu zuen eta marrazki bizidunen bidez oihaneko haurraren eta bere lagunaren istorioa "azukreztua" kontatu zuen. Aldiz, Victoria Álvarez Musetti dramaturgoak eta Sergio Gayol zuzendariak Rudyard Kipling idazlearen ipuina hartu zuten, istorioa ez zela popularizatu zena konturatu ziren. Ipuinaren gainean egindako ikerketaren ondoren *Shere Khan. El otro libro de la selva* antzezlanaren sortu zuten Pájaros pintados, Teatro El Cuervo eta Realidad Traviesa antzerki konpainiek. Otsailaren 26an, igandea, 17:00etan, Iortia kultur gunean, antzezlaren Nafarroako aurkezpena egingen dute.

"Ipuina hartu genuenean gogorragoa zela ikusi genuen", azaldu du Álvarezek. Proiektua Gayolek familiarreko eta haurrei zuzendutako antzezlaren bat egiteko ideia izan zuenean hasi zen. Horretarako "ipuinak begiratzen hasi ginen. Nahi genuen

zerbait desberdina egitea, beti egiten diren ipuin bertsoetatik urrundu". Kiplingen lanarekin eman zuten arte: "Ez da asko egin. Nahiko ezezaguna da". Hain zuzen, *Oihaneko liburua* buruz hitz egitean Disneyk 1967. urtean egindako bertsoa dator burura. "Zerbait desberdina egin nahi genuen ere, ipuin originaletik gertu dagoen zerbait".

Kiplingen *Oihaneko liburua* Indiako oihanean oinarritutako zortzi ipuinez osatuta dago. Horietan Mowgli oihanean agertu den haurtxoaren istorioa kontatzen da. Otso talde batek hartzen eta hezten du. Haurra Baloo izeneko hartz baten eta Baghera deitutako pantera baten laguna da. Antagonista bengala tigre bat da: Shere Khan. Tigreak gizakia gorroto du eta Mowgli akatu nahi du.

## Protagonista

"Liburuaren ikerketa egin genuenean Shere Khan pertsonaia gustatu zitzaigun. Gaiztotzat jotzen da, gauza oso txarrak egiten ditu". Haien lanaren protagonista izatea erabaki zuten.

## Antzerkia, musika eta dantza

Otsailaren 18an, larunbata, inauterien bezperan El Brujo artistaren *El alma de Valle Inclán* antzezlana izanen da Iortia kultur gunean, eta inauteri ospakizunekin *Shere Khan. El otro libro de la selva* familiarreko antzezlana izanen da, otsailaren 26an, igandea; eta martxoaren 4an, osteguna, 19:30an, Udaberriko programazioa hasiko da Altsasuko kultur gunean, *Pioneras* Xián Martínez eta Saioa Belarra dantza ikuskizunarekin.

Martxoaren 11n, larunbata, LaMov dantza konpainiaren *El Lago* dantza ikuskizuna izanen da Iortia kultur gunean; martxoaren 19an, igandea, Haize Berriak bandaren *Emakumeak musikaren gailurrean* kontzertua; martxoaren 24an, ostirala, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua izanen da Altsasan eta egun bat beranduago, martxoaren 25ean, larunbatean, Tarima Beltza antzerki taldeak *Sin salida* lan berria aurkeztuko du. Apirilaren 1ean, larunbata, *Las que limpian* antzezlaren emanaldia izanen da eta apirilaren 15ean, larunbata, Iortia Antzerki Tailerrak *Estrellas de la muerte* antzezlana aurkeztuko du. Apirilaren 22an, larunbata, Yllanak berriz ere Iortia bisitatuko du *Passport* antzezlarekin. Go!azen 9.0 kontzertuak itxiko du udaberriko egitaraua.

Udaberriko saioetarako bi abonamendu prestatu ditu Iortia kultur guneak. Lehenengoa 25 eurotan eros daiteke eta *El Lago* dantza ikuskizuna, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua eta *Estrella de la muerte* Iortia Antzerki Tailerraren antzezlaren emanaldiak ikusteko aukera ematen du, zinemarako sarrera batekin batera. Bigarren abonamenduaren barruan *Pioneras* dantza ikuskizuna eta *Las que limpian* eta *Passport* antzezlana sartzen dira, zinemarako sarrera batekin batera eta 30 eurotan eros daiteke.



Shere Khan pertsonaia 'Shere Khan. El otro libro de la selva' antzezlanean. UTZITAKOIA

# Ipuinari buelta eman diote

Victoria Álvarez Musettik 'Shere Khan. El otro libro de la selva' familiei zuzendutako lehenengo antzezlana idatzi du. Rudyard Kipling idazlearen 'The Jungle Book' ezagunean oinarritu dira lana sortzeko, baina protagonista "gaiztoa" da

"Zergatik egiten ditugu gauza horiek? Zer dago horren atzean?"

Álvarez Shere Khan tigrearen haurtzarora joan zen erantzunen bila, eta antzezlanean ikusten den bezala, oso haurtzaro zaila izan zuela ondorioztatu zuen. "Zerbait gertatzen zaizunean bi bide har daitezke. Ez dago erantzun egokia, gainera, batek ondorio batzuk izango ditu eta besteak beste batzuk". Shere Khanek mendekuaren bidea hartu zuen. Antzezlan batean agertzen diren pertsonaien atzean, esaten eta egiten dutenaren atzean, istorio oso bat osatzen dute idazleek. "Kasu honetan Shere Khanen haurtzaroa eta istorioa ezagutzea garrantzitsua zen. Antzezlanean ikusten direlako zenbait pasaje ere". Badira beste pertsonaia batzuk, Baloo edo Baghera, esaterako, ez dutenek istorioa hain osatua.

Protagonistaren istorioa idazteko Álvarezek antzezlana sortzen duen esperientzian oinarritu da, baita bizitzaren gertakarietan ere. "Azkenean, ezinezkoa da zure esperientzia konkretuetan ez oinarritzea". Dokumentazioa eta ikerketa ere ezinbestekoak dira pertsonaia bat perfilatzeko orduan.

## Minimalista

"Nik istorioa idatzi nuen eta gero entseatzen hasi ginen. Inprobisazioen bidez istorioarekin jarraitzen nuen". *Shere Khan. El otro libro de la selva* antzezlana lan kolektiboaren bidez egiten dute;

## SHERE KHAN TIGRE "GAIZTOA" DA VICTORIA ÁLVAREZEN ANTZEZLANAREN PROTAGONISTA

entseguetan antzezlana sortuz joan dira, zuzendariaren, idazlearen eta aktoreen inpresioak batuz. Ángela Tomé, Laura Penagos eta Idoia Salguero dira antzezlanean parte hartzen duten hiru aktoreak. "Batuetan ez da erraza izan animaliak interpretatu behar dituztelako".

Eszenatokian hiru kubo agertzen dira. "Desagertutako oihan batetik hasten gara. Gizakiak oihana suntsitu duela salatu nahi izan dugu ere". Geratzen den bakarra kutxa horietan dago gordeta. Marrazki bizidunetan ikusitako irudietatik urrundu nahi izan dute eta horregatik ere eszenografia soilarekin batera pertsonaia ez dira guztiz animaliaz jantzen. "Maskara batzuk daramatzate, horregatik beraien dako ere erronka handiagoa izan da. Mugimenduaren bidez adierazi behar dituzte animaliak".

Altsasuko otsailaren 26ko emanaldia Nafarroako aurkezpena izanen da, baina aurretik haurrekin "probak" egin dituzte eta emaitzarekin pozik dago Álvarez. "Asko eman digute. Antzezlana aldatzeko aukera izan dugu haiei esker, zer funtzionatzen duen eta zer ez ikusteko". Esaterako, Shere Khan pertsonaia gehiago karakterizatzea erabaki zuten haurren begiradatik pasa ondoren.

## Ko-produkzioa

Teatro El Cuervo Asturiasko antzerki konpainia bat da eta bertako kidea da Sergio Gayol antzezlanean zuzendaria. Álvarezek harreman estua du konpainiarekin eta aurretik lan gehiago egin dituzte elkarrekin. *Shere Khan. El otro libro de la selva* egitearen ideia bertatik aterazten. Realidad Traviesa Errioxako konpainia bat da eta proiektuan parte hartzen du ere. Antzezlana errealitate bihurtzeko lanean ere Pájaros Pintados Iruñeko konpainia aritu da, Álvarezek konpainia. "Hiru herrialdetako konpainiek parte hartu dutenez, hiru herrialdetan egoteko aukera izanen dugu".

Pájaros pintados Álvarezek duela urte bat inguru sortu zuen konpainia da. *Shere Khan. El otro libro de la selva* ez ezik, proiektu gehiagotan lanean ari dela esan du idazleak. Heziketara bideratutako proiektuak egingo dituela aurreratu du ere.

Antzerkiak guztiz harrapatu du Álvarez. Antzezlana idazten esperientzia dauka, baina Altsasun aurkeztutako dutena haurrei edo familiei bideratutako lehenengo lana izanen da. Bakarra ez izatea ere espero du olaztiarrak. "Beste lengoia bat erabili behar da. Idaztean konturatu naiz gauzak beste modu batera esan behar direla. Agian ez direla hainbeste gauza esan behar...". Normalean testu "asko" idazten duela eta lana idazteko hori aldatu behar izan duela esan du. Entseguetako lana eta haurrekin egindako emanaldiak oso baliagarriak izan dira ere.

Emanaldiaren ondoren, seguruena, sortzaileek hitza hartuko dute, izan ere, publikoarekin duten hartu-eman "oso garrantzitsua" dela esan du. "Beste zentzu bat ematen dio antzezlari; publikoa barnebiltzen duzu".





Naiara Urkijo Zarrantz eta Iris Ramos Álvarez Juantranposo berriak egiten ari dira.

# "Juantranposo berdinak dira, baina erosoagoak"

Iris Ramos Álvarez moda diseinatzaileak Altsasuko ihoteetan oinarritutako jantzi bilduma egin du eta, asteartean, berak eta Naiara Urkijo Zarrantz ihote batzordeko kideak egindako juantranposoak mustuko dituzte

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Iris, herriko ihoteetan oinarritutako jantzi bilduma sortu duzu.

**Iris.** Moda diseinua ikasi dut eta ikasketa amaierako lanean bilduma hori egin nuen. 25 marrazki egin nituen eta lau jantzi egin nituen, unibertsitatean horrela egiten dugulako. Duela urte bat egin nuen eta orain Altsasuko inauterietako erakusketan lau horiek ikus daitezke.

## 2 Zergatik Altsasuko inauteriak?

**I.** Beti gustatu izan zaizkit; txikitatik. Askok bizi ditut. Orduan, interesgarria zen zerbait desberdina aurkeztea, beste gaiak errepikatzen zirelako. Gustuko nuen zerbait egin nahi nuen ere.

## 3 Zertan oinarritu zara?

**I.** Sinbologian eta historian. Galdu zirenez eta urteekin berreskuratu zituztenez, oso polita eta interesgarria iruditzen zitzaidan hori kontatzea.

## 4 Juantranposo berriak egiten ari zarete ere. Zergatik?

**Naiara.** Pasaden urteko juantranposoak jantzi zituztenek aipatu ziguten jantziak berregin behar zirela barruko guztia ateratzen zitzaielako. Begiratzea joan ginen eta berriak sortzea erabaki genuen. Lau handi eta txiki bat. Ez dakit zergatik eta nola baina Iris agertu zen ere eta gure salbatzailea izan zen. Moda diseinua eta patronajea ikasi duenez, sekulako laguntza izan da; proiektuaren burua.

**I.** Deitu zidaten eta gustukoa dudanez oso gustura ari naiz.

## 5 Zein da juantranposo?

**N.** Altsasuko inauterietako pertsonaia bat da. Txerri bat irudikatzen du. Hasieran osten zuen pertsona bat zen eta izkutatze zaku batekin, loditua eta txerri baten buztanarekin, txerrien artean izkutatzen zen. Jolasean aritzea gustatzen zaie.

## 6 Noizkoak ziren aurrekoak?

**N.** Nik uste lehenengoak izaten jarraitzen zutela, duela 40 urtekoak. Juantranposoek duten saltsarekin apurtu ziren eta zaharberritu ziren. Baina orain berregitea erabaki dugu; zerotik hasita.

## 7 Nola egiten da juantranposo bat?

**I.** Ni patrioiak egiten hasi naiz. Aurretik ez zegoen patrioirik, eta horrela aurreragorako ere erreferentzia bat izango dugu gehiago egin behar badira ere.

**N.** Juantranposoak jantzen dituzten pertsonak mugitzeko arazoak zituzten eta agian hankak txikiegiak zirela esan ziguten. Orduan, Irisek hortik abiatuta aldaketak egiten ditu, eta aldatetekin aurrera.

## 8 Berrikuntzaren bat izango dute?

**I.** Tradiziozko jantzia mantendu nahi dugu. Ez da aldaketa handirik egongo. Jantzen duten pertsonak erosoago eta mugimendu gehiago izateko aldaketak egingo ditugu bakarrik.

**N.** Esaterako, hanka txikiegiak zituztenez ezin ziren oso ongi ibili eta asko nekutzen ziren. Nekatuko dira berdinekin, baina erosoago mugitu ahalko dira. Juantranposo berdinak, baina erosoagoak.

## 9 Barruan zer daramate? Kontuan izan duzue?

**N.** Normalean burbuilazko plastikoa izaten dute, eta bularraldean gomaespuma zonaldea babesteko. Zabalerak kontuan izan ditugu; pertsona baten hanka hartu dugu eta horri zabalera gehiago eman diogu.

**I.** Bi kapa jarri ditugu ere. Horrela, lurrera botatzen direnez eta abar, puskatzen badira eta zulo bat egiten bada barrukoa ez da aterako.

## 10 Zaku oihalekoak dira. Nolakoak izan da joste lana?

**I.** Gogorra, baina umore onarekin aritu gara. Giro oso polita sortzen da.

**N.** Joste makinekin egin dugu eta horrek abiadura bizkortu egiten du, baina hala ere oihal potoloa denez makinan tratatzen da, haria puskatzen da... Osti-txarrak ere egiten ditugu, baina beti farrez. Batzordeko jendea etortzen da laguntzera: patrioiak eta oihala moztera...

## 11 Zer esaten dute juantranposo izango direnek?

**N.** Gurekin egon direnak pozik daude haien kezkak zirenak aldatu ditugulako. Probatu ondoren esaten badigute aldaketaren batekin gaizki ibili direla berriz aldatuko dugu.

**ITZULPENGINTZA  
ZERBITZUA  
EZAGUTZEN AL  
DUZU?**

Euskarara edo euskaratik itzuli nahi duzun testu horrekin lagunduko dizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**gk**  
DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA



619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu

